




ttipi-ttapa



2011ko irailaren 15a | XXXI. urtea | 550. zenbakia

www.ttipi.net

Herriko bestak
Aniz, Urroz eta Igantzin

BERA → 15
Dantzari Tiki Eguna
irailaren 24an

ITUREN → 21
Joaldunen Eguna
irailaren 24an

BAZTAN → 36
Errebestak Amaiur,
Arizkun eta Erratzun

BTT PROBAK → 43
Ibilaldiak Lesaka,
Plazaola, Bera eta Saran



Andoni SALDIAS | Oizko erremontista profesionala

Erremontea bizibide izatea amets

Abuztuaren 13an debutatu zuen profesionaletan Hernaniko Galarretan, Oriamendi enpresarekin. Hasteko, sei hilabeteko kontratua egin diote 19 urteko oiztarrari eta bi astetan zazpi partida jokatu ditu. Gogotsu eta erremontean segitzeko ilusioz hasi du ibilbide berria.

→ 44



ERREPORTAJEA → 4-5

Arkupeak elkarteko zuzendaritza talde berria hasi da lanean. «Orain artekoa mantentzeaz gain, proiektu berriak atera nahi ditugu aitzinera» diote.

ABELTZAINZA → 34

Pirinioetako behien lehiaketa-enkantea eginen da Elizondon buruilaren 24an eta 25ean



KIZKI EGUNA → 30

Goizuetan, urriaren 1ean, 355 lagun baino gehiago elkartu nahi dituzte kizkiarekin sagarrak biltzen. Kizki Egunaren aurreko 2 edizioak Astigarraga eta Oartzunen egin dira.



ELKARRIZKETA → 3

Alizia ALEMAN: ALBOAN erakundeko ikerketa sailean eta sare politikoan ari da lanean 2008az geroztik.

GERTAKIZUNAK → 32

Espainiako Auzitegi Nazionalak Oier Eizmendi Leitzako alkatea inpuntatu du, eta berekin batera beste bi herritar ere bai.

ZOKKETAK → 51



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora



muebles
ORDOKI
alzarriak

OBRENGATIK BITTIRIAKO
ERAKUSTOKIA LEKUZ
ALDATU DUGU
Galdetu dendan



Denda: Plaza Zaharra, 27 | 31770 LESAKA, Nafarroa
Tel. 948 637 780 E-posta: info@mueblesordoki.com Web www.mueblesordoki.com

TTIPI-TTAPA_k ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

gure txerriak
indaritutako
proiektua
can
proiektu
zenbakia
15.996

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak



ttiipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogapiria Nafarroako Kuzanin zure bulegoan
eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abenduaren 30a baino lehen.

2008az geroztik, ALBOAN Gobernu Kanpoko Erakunde egiten du lan Alizia Aleman elizondarrak: ikerketa sailean eta sare politikoan ari da, bertze erakundeekin harremanetan.

tan. Baina ibilbide luzea du gibeletik: Nazioarteko Zuzenbide Publikoan doktoretza egina du, Baigorri eta Baztan konparatuz ikerketa lan bat ere bai, Perun Nazio Batuen

Erakunderako ere aritua da lanean, baita Munduko Bankuarentzat ere. Gaur egun, Euskal Herrian bizi da, nahiz eta lana tarteko, kanpoan ere aunitz ibiltzen den.

Alizia ALEMAN | Alboan Gobernu Kanpoko Erakundeko teknikaria

«Giza garapena mantentzeko gai izan behar dugu, baina inor baztertu gabe»

G. PIKABEA | ELIZONDO

Zertan aritzen da ALBOAN?

Jesusen Lagundiak Loiolako probintzian [Hego Euskal Herrian] garapenerako lankidetzan aritzeko duen Gobernu Kanpoko Erakundea da. Garai batean, misiolariak hainbat tokitan izaten ziren eta hemengo jendearekin harremanetan egoten ziren, batez ere dirua eskatu eta proiektuak egiteko. Baina 90. hamarkadan gero eta jesuita guttiago zegoela eta, profesionalitzatzeko beharra ikusi zuten eta ALBOAN GKE Gobernu Kanpoko Erakundea sortu zuten. Hainbat proiektuekin ari gara lanean, garapen proiektuekin eta programekin eta horietarako aunitz hezkuntza arlokoak, bai atzerrian baita hemen ere. Baina alderdi produktiboan eta politika sozialak indartzeko proiektuekin ere ari gara. Batez ere, Asian, Ertamerikan, Hegoamerikan eta Afrikan egiten dugu lan. **Zein da zure lana?**

Ikerketa sailean eta sare politikoan egiten dugu lan. Beti bertze erakundeekin egiten dugu lan, eta horri deitzen diogu sareak. Sareak eraikitzen saiatzen gara ikerketak egin eta legeak aldatzeko, eta horien jarraipena ere egiten dugu.

Guatemala, Kongo eta Indiako natur baliabi-



ARGAZKIA: TTAPI-TTAPA

Alizia Aleman 2008az geroztik ari da Alboan Gobernu Kanpoko Erakunde lanean.

deen kudeaketa aztertzen ari zaratze...

Hala da. Guatemala, Kongo eta Indiako natur baliabideen kudeaketa eta arazoak aztertzen ari naiz, konparaketa bat eginez. Natur baliabideak desberdinak dira hiru tokietan: Guatemalan ura dute eta hidroelektrika bat egin nahi dute, Kongon meategi artsanalak dituzte eta Indian oiha-nak. Nahiz eta baliabideak desberdinak izan, prozesu batzuk nahiko berdintsuak dira. Eta antzekotasun haundiena inguru oso pobreak direla da eta baliabide horiekiko menpekotasun haundia

EGITEN ARI DEN IKERKETA

«Guatemala, Kongo eta Indiako natur baliabideen kudeaketa eta arazoak aztertzen ari naiz. Natur baliabideak desberdinak dira hiru tokietan baina prozesu batzuk nahiko berdintsuak dira. Antzekotasun haundiena inguru oso pobreak direla da eta baliabide horiekiko menpekotasun haundia dutela. Bizitzeko baliabide hori beharrezkoa dute eta horregatik borroka oso garrantzitsua da, ez badute ongi zaintzen, ogibiderik gabe gelditzen ahal baitira. Badirudi natur baliabideen inguruan hartzen diren erabakietan parte hartu ahal izateko borrokan ari direla herritarrak. **Hiru herrialde horietatik zer nabarmenduko zenuke?** Indiako Gujarat zonaldean bizi diren indigenak arras pobreak dira, oiha-netan bizi dira eta hauek estatuarenak dira. Oihanen eskubideen inguruan 2006an onartu zen legea

ezartzeko borrokan ari dira. Lege berri horrek orain arte eduki ez dituzten eskubideak aitortzen dizkie. Kongon, berriz, heziketa bat jaso, lan egin eta etorkizun onartzeko ia aukerarik ere ez dute. Aunitzetan, lan egiteko aukera bakarra meategi artsanalean aurkitzen dute, eta hori arras arriskutsua da. Guatemalan, natur baliabideekin bat datorren mundua ulertzeko borrokan ari dira.

Lankidetzak politikak aztertzen dituzue...

Gure ikerketaren bertze ildo lankidetzak politikak aztertzea da. Adibidez, EAE eta Nafarroako gobernuak zer egiten duten lankidetzaren inguruan ikustea. Aurrekontuen jarraipen haundia egiten dugu, zein konpromiso duten eta zenbat gastatzen duten. Badirudi, 2010ean, adibidez, nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzak %2 murriztu zirela EAEn.

Kanpoan ibili ondotik, nola ikusten duzu gure ingurua?

Leku pribilegiatuan bizi gara, bizi kalitate onarekin. Giza garapena mantentzeko gai izan behar dugu, baina inor baztertu gabe. Natur baliabide-etara lotu behar dugu, ditugun aukerak ikusi, aitzinera nola egin jakiteko. Ongi bizi eta ongi elkar-bizi, bakean eta adiskidetasunean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Hauxe da Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzorde berria. Ezkerretik hasita, Jose Oronoz, Jose M^a Irazoki, M^a Isabel Mitxelorena, Pedro Bañares, Fernando Etxeberria, Gemma Gamio, Pakita Mikelarena eta Jose Luis Legarra. Zuzendaritza osatzeko Juana M^a Bertiz falta da argazkian.

GIZARTEA → URDAZUBITIK DONIBANE-LOHIZUNERAINO ETA LEITZALDERAINO

Orain artekoa mantenduz proiektu berriak landu nahi ditu Arkupeak-eko zuzendaritza berriak

Adin desberdinetako bazkideengana ailegatu nahi dute

Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzorde berria lehen pausoak ematen hasia da. Orain arteko bidearekin segitu nahi du, baina aldaketak egin eta proiektu berriak ere atera

nahi ditu aitzinera. Bertzeak bertze, estatutuak eguneratu nahi dira, komizioak eratu dituzte, zerbitzu berriak eskaini nahi dira, baita diru iturri berriak bilatu ere.

G. PIKABEA

Ilusioz eta gogoz hasi du ibilbide berria Arkupeak elkarteko zuzendaritza berriak. Uda honetan hasiak dira lanean eta ez zaie proiekturik falta. Hauek dira zuzendaritza batzordea osatzen duten aurpegi berriak: Pedro Bañares doneztebarra lehendakaria da, Ezkurrako Fernando Etxeberria lehendakarior-

dea, M^a Isabel Mitxelorena doneztebarra idazkaria, Jose Oronoz iruritarra diruzaina eta bortz bokalak hauek: Juana M^a Bertiz donamariarra, Pakita Mikelarena legasarra, Gemma Gamio doneztebarra, Jose M^a Irazoki beratarra eta Jose Luis Legarra doneztebarra.

Proiektu andana dituzte eskuartean. Aldaketak egin nahi dituzte,

baina argi dute orain arte Arkupeak-ek egin duen bidea ere mantendu nahi dutela. Guztiengana ailegatzea da helburua. Izan ere, aski eremu zaballean bizi diren 3.100 bat bazkide ditu Arkupeak-ek, Urdazubitik Donibane Lohizuneraino eta Leitzalderaino. Eta esku alde zabalaz gain, denetarikoz bazkideak. Zuzendaritzaatik adierazi digu-

tenez, «Arkupeak-en adin eta egoera desberdinetako pertsona aunitz gaudede. Denak diferenteak gara eta interes diferenteekin. Badira 60-65 urtekoak, sasoi onean, eta adinean aurrerago joan ere bai. Denentzat ailegatzeko ekintzak prestatu nahi ditugu».

ESTATUTUAK ETA FUNTZIONAMENDUA

Hasteko, estatutuak dira eguneratu nahi dituztenak eta horren barne, elkarte zertarako den zehaztu nahi dute: «zer den elkarte, zertarako eta nola antolatu ikusi behar da», diote zuzendaritza berriko kideek. Gisa berean, lau urtetik behin zuzendaritza batzordea berritzeko hauteskundeak egitea ere proposatu dute.

Bañares, Etxeberria, Irazoki eta Legarra izanen dute estatutuak eguneratzeko ardura eta ondotik, zuzendaritzako gainerakoek aitzinean aurkeztuko dituzte proposamenak. Herrietako ordezkari bidaliko zaie gero eta ondotik, Nafarroako Gobernuari, behin betiko onartua izan dadin.

Funtzioamendua ahalik eta eraginkorrena izan dadin, komizioak berezi dituzte: batzorde ekonomikoa alde batetik, bertzeak bertze, aurrekontuez, dirulaguntzez eta finantza erakundeez arduratzeko. Bidaien batzordea dago bertetik; instituzio eta hedabideekin harremanak hirugarrenen, eta gizarte eta kultur garapena azkenik. Gainera, urritik aitzinera administrari bat kontratatuko da lanaldi erdian eta garbitzaile bat ere hartu da lanaldi erdian.

Kudeaketari dagokionean, afiliazioa eta bankuko kontuaren helbideratzea ezinbertzekotzat jo dituzte. «Orain arte, bazkideek delegatuei ematen zieten kuota edo bidaien dirua. Honek diruzainari ematen zion eta honek bankura eramana. Hori baino errazagoa da zuzenean bankutik kobratzea», diote zuzendaritzakoek. Honen harira, erran, kuota sei eurotik zortzi eurotara igo dela.

Herrietako delegatuen lanaz ere ez dira atzenu. 41 dira guztira eta urteetan «etxez etxe lan handia» egin dutela

EPE MOTZEAN EGINEN DITUZTEN BIDAIK



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Abuztuaren 31n Arantzazun eta Loiolan izan ziren Arkupeak-ekoak.

Aste honetan Madrilera joanen dira eta bi aste barru Benidormera

Duela bi aste Arantzazun eta Loiolako basilikan izan ziren. Asteazken honetan, Lezora joatekoak ziren eta ortziral honetan, irailak 16, Madril aldera joanen dira. Arkupeak-eko bazkideak ez daude geldirik egoteko eta elkartean hainbertzerako garrantzia

duen bidaiak antolatuz segitu nahi du zuzendaritza berriak. Irailaren 16tik 23ra Madril eta inguruak ezagutzen ibiliko dira. Irailaren 29tik urriaren 13ra, berriz, Benidormen eginen dute egonaldia eta urriaren 30ean Lodosa eta Lizarrara joanen dira.

azpimarratzea nahi du zuzendaritzak. Lana erraztu nahi diete, baina hemendik aitzinera ere euren partehatzea ezinbertzekoa izanen da.

ZERBITZU BERRIAK

Zerbitzu berriak ere eskaini nahi dituzte. Hasteko, webgune bat mar txan paratzeko asmoa dute eta Internetek ematen dituen abantailak ere baliatu nahi dituzte. Baina teknologia berriak aunitzetan arazo bihurtzen dira adin jakin bateko jendearentzat eta horri ere aterabidea eman nahi zaio, informatika eta Internet bazkideei hurbilduz.

Sasoian dauden eta mendirako afizioa duten bazkideak ere badirela aprobetxatuz, mendi taldea sortu nahi dute elkartearen barne. Eta bertetik, urteetan egiten diren bidaiak gain, berriak antolatzeko asmoa ere badute. Bidaien berri emateko modua ere aldatu egingen da. Orain arte, antolatzen zen bidaiak

EMAN ETA HARTU
«Zain gaude jendeak Arkupeak-etik zer espero duen jakiteko, baina zerbait eskaintzeko prest dagoen jendea ere pozik hartuko genuke»

Zuzendaritza Batzordea

bakoitzeko informazio-orri bana bidaltzen zen bazkideei. Orain, aldiz, lauzpasei hilabetetik behin boletin informatiboa kaleratuko da eta han agertuko dira bidaiak guztien xehetasunak.

Gizarte alorra ere landu nahi dute. «Gure adinakoek ez dute oraingo gazteek izan duten aukera izan eskolara edo unibertsitatera joateko, baina jakinmina badute. Horregatik, kultur jarduerak antolatu nahi ditugu, euskararen erabilera indartu, hitzaldiak, tailerrak eta ikastaroak antolatu...». Baina badituzte egitasmo gehiago ere: etxerajatekoa edo erosketak

eramateko zerbitzua, fisioterapia, podologia, ezinduentzako aulki, ohe edo gisako tresnak... eskaini nahi dira, baita aholkularitza zerbitzua ere, gai fiskalen inguruan bazkideei laguntza emateko: testamentuak, donazioak, pentsioak, jubilatarioak... Baina hori boluntarioen laguntzarekin egin nahi da eta horretarako, kolaborazioa eskatu dute: «Zonaldeko jende helduaren artean, bertzei laguntzen ahal diene aunitz dago, beharrak dituztenei esku bat botatz edo edozein gairekin lagunduz». Horren harira, zera adierazi dute, «zain gaude jendeak Arkupeak-etik zer espero duen jakiteko, baina zerbait eskaintzeko prest dagoen jendea ere pozik hartuko dugu».

BAINUETXEAREN PROPOSAMENA

Arkupeak elkarteko bazkideei eskaintza bereziak egingen zaizkiela erranez, eskaintzak egin

ORDEZKARIAK HERRIZ HERRI

Almandoz	Isaac Altzugarai
Amaiur	M ^a Victoria Juanikotena
Aniz-Ziga-Berroeta	Emilia Azkarate
Arantza	M ^a Dolores Iturria
Arizkun	Jabier Larralde
Arraioz	Joakina Bengoetxea
Azpilkueta	Consolacion Zubiri
Bera	Jose M ^a Irazoki
Bera	L. Telletxea-M. Barandiaran
Bera	Manuel Dagerre
Donamaria	Juana M ^a Bertiz
Doneztebe	Eloina Martin
Doneztebe	Isabel Ruiz
Elgorriaga	Jose Jabier Telletxea
Elizondo	M ^a Dolores Oronoz
Elizondo	Rosa Mendiburu
Eratsun	Calixto Estanga
Erratzu	M ^a Carmen Auzki
Etxalar	Arantxa Mikelestorena
Ezkurra	Fernando Etxeberria
Gaztelu	Julio Sagardia
Goizueta	Isabel Etxeberria
Igantzi	Amador Txoperena
Irun	Lorenzo Alagon
Irurita	Jose Oronoz
Ituren	Izaskun Bazterrika
Labaien	Candida Goñi
Leitza	Eusebio Maritorea
Leitza	Martin Mariñelarena
Lesaka	Candido Mutuberria
Narbarte-Legasa	Pakita Mikelarena
Oiz	M ^a Jesus Arozena
Oronoz-Oieregi	Rosa M ^a Bertiz
Saldias	Jose Urrutia
Sunbilla	Martin Irazoki
Urdazubi	Teresita Bidart
Urroz	Marcos Juanena
Zubieta	Ana M ^a Uhalde
Zubieta	Ana Mujika
Zugarramurdi	Mercedes Arburua
GUZTIRA	41 LAGUN

dirkie Elgorriagako bainuetxeak. Akordioa lortu dela erran izan bada ere, zuzendaritzatik azaldu digutenez, oraindik ez dago deus erabakia.

AUTOFINANZAZIOA

Dirulaguntzak ere jeitsi egin zaizkie: 2010ean guztira 54.613,30 euro hartu ziren Gobernutik eta Nafarroako Kutxa Fundaziotik eta 2011rako 38.595,75 euro aurreikusitako. Dena den, diru sarrerak jeitsi izanari aurre egiteko ideiak ere badituzte. Fundazioa sor-

tzea, adibidez. Izan ere, fundazio bat eratuz gero, enpresek edo partikularrek dirua emateko aukera edukiko lukete eta horrekin zergak arinduak izanen lituzke. «Onuradunak zertan aterako garen ikusi behar da», diote.

Lanerako gogoia badute, proiektuak ere ugari. Erroka, orain, proiektu horiek denak aitzinera eramatea izanen da. «Arkupeak-ek orain arte 'bidaiak eta bazkariak' kontzeptua izan du, baina guretzat hori baino zerbait gehiago da».



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Buruila

San Simon eta San Juda, joaki da uda eta udazkena heldu da. Bai, kantuan ez da hala, baina uda pixar bat izaki oraino, eta negua haratxeago baita...

Buruilean, politikari, kirolari eta hainbat lurtar, 'beltzaran perfektua' soinean itzuli dira laneko 'krisi perfektura', eta ez preseski belarretan aritu ondoren. Bertze batzuek, ordea, itzala maite, eta nekez zaindu dugu 'xuringo perfektua'!

Udako bakantzetan tripa besta, parranda, bestondo, freskaldi eta loaldi 'perfektuak' egin ondotik, lanean berriz laketzeko tenore latza da buruila. Egunerokoaz gain, plazer duenak, *-ing* kirolak, gorputz eta buruak orekatzeko ekialdeko diziplinak, kanpoko hizkuntzak, eta, bistan da, bertako mintzaira, denetan exotiko eta xarmentana, hemendik aitzinerat mahaian prest.

Eta eguna gehiago laburtzera behartuko gaituzte, eta mendiak ondo lapurrez estaliko dira, eta haitze-hegoa gau epela edo iparra gau hotza kantatuko dugu... San Simon eta...

«Lanean berriz laketzeko tenore latza da buruila»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Txin-txin, diruaren hotsa


Ez du zorientasunik ematen, baina lagundu egiten omen du. Dirua (Defizita) medio, orain arte ukiezina zirudien Espainiako Konstituzioa aldatzeko ere ez dute problemarik izan PSOE eta PPK. Diputazioetan aldatetak izan diren lekuetan, aurrekontuetan izugarritzko diru-zuloak topatu omen dituzte agintari berriek. Nafarroan ez aldaketa, ez zulo. *Haretxek ematen dit, maitia, bihotzian poza!*

Nabarmentzekoak



Koteto EZKURRA
Hamaikagarren txapela

Pronostikoak irauli eta hamaikagarren aldiz jantzi du buruz buruko erremonste txapela, Urrutiasaldiastarrari 30-22 irabazita. Lehen txapela 1995ean lortu zuen, azkenekoa noiz?



Bixente IGARTZABAL
Lesakako kirolaria

Embrunman triatloi gogorrean, kasik mila kirolarien artean 21. postua eskuratu ondotik, Larra-Larrauntxirindulari proban hirugarren izan zen kirolari lesakarra.



Antonio ALUSTIZA
Aresoko artzaina

Hamabigarren aldiz irabazi du Nafarroako Artzain Txakur txapelketa, Ttiki txakurarekin. Erraz esaten da. Igande honetan Euskal Herrikoa irabazteko aukera ere izanen du Atxondon.

Atzera begira → 1992.09.17 / TTIPI-TTAPA 93. zbk



Kirolaren egoera «kaxkarra» zen bertako Udalen ustez

Gure eskualdeko kirolaren egoera kaxkarra zela eta Nafarroako Gobernuari protestarik «gogorrena» agertu zioten duela 19 urte Baztan, Malerreka eta Bortziritako udal gehienek Baztangoaren ekimenez. Orduko gobernuak ez zuen onartzen aitzinekoak egindako kirol egitura eta, beraz, ez du plangintza haren ondorioz sortu ziren udal eta eskualdeko kirol koordinatzaileak ordaintzeko laguntzarik eman asmorik. Honetaz gain, irailaren 18an Beran biltzekoak ziren Baztan-Bidasoko kirol eskualdea osatzen zuten Udalak, behar ziren neurriak hartzeko intentzioarekin.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joana Guerendiain...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Erljioaren aniztasuna

Pello APEZETXEA

zakiak aunitz motatakoak dira. Barazkiak, arbolak, loreak aunitz dira, baina ez kopuruz bakarrik, kolorez, formaz eta zaporez ere bai; zenbat eta zenbat hegazti eta arrain klase diren, zenbat lurreko animala. Eta zenbat jende, izaera desberdinekoak. Eta izaera desberdinarekin jende batek gauza baterako du gaitasun berezia, eta bertzeak bertzerako. Baten adimena ez da bertzearena bezalakoa. Ez dute denek bizitzari buruzko pentsaera eta ikuspegi berdina, ezta sentiera nahiz mintzaera ere.

Hori horrela baldin bada, ez gara harrituko gure ginetik norbait izatearenaz ere usteak aunitz izatea, Jainkoaren izateaz, alegia. Jainkorik edo gure gainekorik baden edo ez den, ez gara pentsaera berekoak, eta hori normalizat jo beharrean gaude. Fededunak eta fedegabeak izatea. Eta Jainkoa badelako idurikoak izanda ere, Jainko horren nolakoaz ehunka eta ehunka sineskera diferente ikusten ditugu, ia kulturak adina. Nahiz eta, kulturak bezala, erlijio batzuk ezagunagoak zaizkigun: kristautasuna eta islamismoa, adibidez.

Erljioaren aniztasuna ez da, ordea, hor agortzen. Erljio bakoitzean interpretazio bat baino gehiago dira, batasuna hausten dutenak. Katolizismoa eta protestantismoa kristautasun familiakoak badira ere, ezin ukatu zenbait berezitasun baduela bakoitzak. Baina gehiago. Katoliko abizena eramangatik, ez dugu erraten ahal Batikanotik eta hainbat teologo jakitunengandik ikuspegi berdina eskaintzen zaigula. Eta gauza bera, kristau talde batzuen eta bertzeen jokaeran ikusten duguna.

Hondar urteetan aldatzen goaz, baina oraindik ere aunitz eta desberdin garela konprenitzea aski zail gertatzen zaigu. Ez da aspaldiko kontua, apez baten erakutsia eta bertzearena ezberdinak baldin baziren, honelako erranak aditzea: «Baina ez da Jainko bera?» Eta, egia, ez dira Jainko ezberdinak, gu gara ezberdinak, gure usteak eta iduriak. Eta gure aniztasun eta pluraltasuna errespetatzea bete behar dugun eginkizuna da.

«Ez da aspaldiko kontua, apez baten erakutsia eta bertzearena ezberdinak baldin baziren, honelako erranak aditzea: "Baina ez da Jainko bera?" Eta egia, ez dira Jainko ezberdinak, gu gara ezberdinak, gure usteak eta iduriak. Eta gure aniztasun eta pluraltasuna errespetatzea bere behar dugun eginkizuna da»

11 Su eta min ikustekoak gara

Joseba URKIOLA

nork gutxi ahaztu du 2001eko irailaren 11. Astearte zen eta telebista guztietan irudi berberak eta irrati denetan soinu banda berdina zegoen entzungai. Baina orduko hura ez zen pelikula bat ezta irrati eskaintako antzerki bat ere. Momentu historiko erreale baten lehen minutuak ziren. Lehen Mundu Gerran, Bigarren Mundu Gerran edota Gerra Hotzean ez bezela, AEBak, Lehen Munduaren ikono eta sinboloa zauritua izan zen. Titanic-ekin gertatu bezala, ekonomiaren ontzi handia ez zela ondorazina jakin zuen munduak. Ondorioa 3.000 pertsona inguru hilda, bi dorre erraldoi ezereztatuta eta neoliberalismoaren noraez partikularraren hasiera. Orduantxe jakin genuen, nortzuk ziren George W. Bush, Osama Bin Laden eta Al Qaeda.

Geroztik egunero argitzen du egunak baina gauzak ez dira berdinak. Irak eta Afganistaneko herritarrei galdetu besterik ez dago. Haiiek edozein adituk baino bertsio eta iritzi mingarriagoa daukate. 250.000 pertsonak agur behartua esan dute. Asko dira familiarik, nortasunik eta izaerarik gabe geratutakoak. Pentagonoaren kapritxo bihurtu ziren bi herrialde hauek eta herritarrek ederki pairatu dute hori. Mundu honetan lur hartzea beste kulparik ez eta patuak; zoriontasuna, aberastasuna eta maitasuna eman beharrean, negarra, tristura eta zorigaitza eman die opari.

2001eko sarraskiaz geroztik, krisi hitza behin eta berriz entzun dugu. Krisiak esparru asko zipiztindu ditu; politikoa, soziala, ekonomikoa, familiarra... Azken aldiari ekonomikoa soziala ari da mundua iraultzen. 2011n Ekialde Hurbileko herritar asko euren loaldi sakonetik esnatu dira. Tunisiak, Egiptok eta Libiak eztanda egin dute. Goi Agintariek azpiko ezpainari hozka egin eta euren herrialdeetatik joan behar izan dute. Europan ere, ez dira gustora. Greziako gazteak, Espainiar Estatuko 15Mko ordezkariak eta berriki Tottenhamen sortu diren suminduak dira horren adibide. Lehen ere ez zen erraza izango baina egungo gazteak 'Etorkezunik gabeko belaunaldiko' partaideak bezala ezagutzen dira. Aberatsak aberatsago eta pobreak geroz eta txiroago diren une mingarri hauek, gaztearen papera gizartearen gidoiari ez da erraza eta orduak pasa ahala okerragoa dela dirudi. Europan Batasuneko gazteen %21a langabezia dago. Espainiar Estatuan datuak mardulagoak dira, %42,8.

Zerbitzu publikoak pribatizatzea, hori da Europan Batasuneko goi agintariek krisi ekonomikoa baretzeko aho txikiarekin pentsatzen ari diren antidotoa. Gazteak ez ezik, helduak ere noraezean gera daitezke. Egun publiko eta ireki diren hezkuntza, hospital eta garraioak kolektibo txiki baten eskura bakarrik egon daitezke. Berdin du aurretik urteak zergak ordaintzen egon izana. Hori iraganaren parte da.

Zer panorama elikatzen ari garen somatuta, badirudi New Yorken ez ezik familia guztietan egon daitezkeela Zero Guneak. Goi agintarien estrategiak egunero ari baitira norbanakoek urteetan landu dituzten dorreak suntsitzen eta honek bai konponbide zaila daukala. Gizakia zaldiz ibiltzera ohitzen denean, nekez onartzen du astora bueltatzea. Beste batzuk, hori bai, egunari orduak kenduaz eta gauari desafioa eginez oinez ibiltzarekin konformatu beharko dute.

Irakurleak mintzo



Bota bertsoa

Mikel IÑARREA (Baztango bertso eskola) • Doinua: Frantses euskaldun bat...

Belateko tunela berriz ere zabalduko dute

Nazional ehun ta hogeita bat-an
badago kamioi ugari
eta tartean beren artean
kotxeak ere ageri
uda guztian itxita egon da
tunel madarikatu hori
kamioia erre egin zen baina
errua ez bota berari.

Tunel barruko konponketa hori
hartuko dugu begiko
konponketa hoi egindakoan
ordun gera ibiliko
kamioiak eta kotxeak ere
hartuko dute gogoko
beste urtean udaran ere
berriro dute itxiko.

**Berako
Gure Txokoa
dantza taldeari**

Antton ERKIZIA

Zorionak, beranduxe bada ere. Zuen dantza jaialdia, bestatan eskainitakoa, ona eta egokia iduritu zitzaidan. Dantzak erakustea baino zertxobait gehio izan da aurtengoa, ikusgarria baino zertxobait gehio. Historia bat antzestu duzue, herriko pasarte historiko gogor bat (sorginak), dantzaren bidez.

Ez zaituztet ezagutzen baina lan bikaina egin duzue, nire iduriko: dantzak gaurkoztzen, folklorea eguneratzen, berretzen, bertsionatzen, gidoiak, edukiak, erritmoak...

Hori aipatu eta gorraipatu nahi nuen hemen. Nire iritzia ez da aditu batena; ez naiz aditua, ezta dantzaria ere. Begirale baten ba-

lore xumea dute nire hitzok, doike. (Nahiz eta... lesakar bat beratarrak zoriontzen... hori bera bada zerbait, ez?. ;>).

Bromak aparte: zorionak. Bakoitzari be-rea.

**Leitzako
txupinazoaren
ondorioz
auzipetuei
babesa**

Euskal Herriko Bilgune Feminista

Joan den ostegunean Audientzia Nazionalan ireki den prozesuaren aurrean Euskal Herriko Bilgune Feministatik gure elkartasun eta babes guztia adierazi nahi diegu Bilgune Feministako kidea den Saioa Iraola, urteetan emakumeon eskubide-

en alde gurekin elkarlanean aritu den Lurdes Juantorena eta Oier Eizmendi alkateari.

Leitzako festetan txupinazoa botatzea gure lana errekonozitzeko era polita iruditu zitzaigun. Gutxitan eman zaio herri mugimenduari festetako momentu garrantzitsu honetan tartea, eta are eta gutxiago mugimendu feministari. Lehen aldiz mugimendu feministako kide batek Leitzan eta lehen aldiz

Leitzako udaletxeko balkoitik emakumeon eskubideen aldeko hitzak entzun ziren. Txupinazo ez ohikoa, amona, ama eta emakume guztien erreferentzia egiten zuena. Gure eskubideen aldeko oihu eta algarak herriko platan, hainbestetan ukatu zaigun espazioan.

Honen ondorioz deklaratzeraz deitu dituzte Leitzako hiru herritarrek Audientzia Nazionalera. Emakumeen eskubideei jaietan behar du-

en tartea emateagatik. Herritarrek egin duten lana plazaratzeagatik. Urteetako borrokei zorionak emateagatik.

Aski da!
Euskal Herriko Bilgune Feministatik Audientzia Nazionalak ireki duen hiru herritar hauen aurkako prozesua salatu nahi dugu eta era berean Leitzako herritar guztiei gure babes guztia eman, feminismoaren presentzian atzera pausorik ez onartu eta borrokan jarraitzeko.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da

ttipi-ttapa aldizkari doan
+ 39 denetan deskontuz
hamabostero zozketa zuzenak

40euro
- 10euro
= 30euro

TTPI-TTAPAREN URTEKO KOSTUA 21 EURO DA. TTPI TXARTELA gutunak, zozketa zuzenak eta urteerako azkeneko, Egilearen Aitortzearen 10 Euro (10000) bidez.

Prentsatik bildutakoak



«Kotetori irabazteko denean asmatu behar da. Normalean, berak beti ongi jotatzen du. Hori kontuan hartu behar da kantxara atera aurretik. Aurrelaria izanagatik sakatzaile ona da, eta peloteoan oso azkarra. Ez da sekula urduri jartzen. Egiten duzun hankasartzea, berak ederki aprobetxatzen du. Joan den urtean ongi irabazi zidan».

«Ez genuen gerra eta politikari buruz ezer ulertzen, baina beraiekin eraman gintuzten eta 1939ra arte ez ziguten etxera itzultzen utzi (...) Hiru urte haietan denetarik pasatu zitzaigun (...) Hemen inguru-koak ginenok euskaraz bakarrik hitz egiten genuen eta hasieran ez genuen ia ezer ulertzen. Gero gaztelaniaz ikasi eta lagun onak egin genituen, baita Andaluziakoak ere».

Migel Mari URRUTIA
Saldiasco erremontista
D. VASCO, 2011.09.01

Inazio GAZTAÑAGA
Leitzako zaharrena (95 urte)
D. NOTICIAS, 2011.08.28

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Mutil alaia, juergazalea eta lagunena tartean ibiltzen dena.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Mendian ibiltzea, motorrean ibiltzea eta palaz aritzea ere bai, kirol pixka bat eginez.

Krisi garaian gaudela erraten da baina lberdrola irabaziak izaten ari da. Zer nabaritu da langileen artean?

Oraindik langileoi ez digute ukitu.

Zer du Urrozek bertze herriek ez dutena?

Dena! Enbaltseak hor ditugu, gazte eta zaharrak hagitz ongi eramatean garelara...

1900an Urrozek 654 biztanle zituen eta gaur egun, 190 lagun bizi zarete. Zer pasatu da?

Jendea kanpora joaten da eta herrian ez da gelditzen. Nik etxea herrian egin dut eta ea gazteak herrian gelditzera animatzen diren.

Zer du faltan eta zer soberan Urrozek zure ustez?

Faltan dendak eta horrelakoak eta gazteak herrian gelditzea ere bai. Eta soberan ez dut uste deus izanen duenik.

Gehien gustatzen zaizun Urrozko tokia zein da?

Enbaltse alderdia.

Zein dituzu nahiago: bestak ala inauteriak?

Bestak. Inauterietakoa egun polita da baina bestak lau egun dira eta gauza aunitz egiteko aukera bada, besta egin eta deskantsatzeko ere bai.

Urrozko bestetatik gehien gustatzen zaizuna?

Herriko bazkaria.


Eguna ala gaua duzu nahiago?

Biak, bakoitza bere tenorean. Gaur egun, biak disfrutatzen ditugu.



Urroz ez den besta egiteko bertze toki bat?
Goizueta.

Iñaki JUANENA → Urrozko gaztea



GIZARTEA

GIZARTEA → ARTZAIN EGUNAREN 44. EDIZIOA

Antonio Alustiza aresoarrak 12. txapela jantzi du Artzain Zakur Txapelketan

Gazta eta ardi latxaren lehiaketetan ere hainbat sari eskualdera etorri dira

TTIPI-TTAPA

Uharte Arakilgo Geinbera zelaian jokatu zen abuztuaren 28an, Nafarroako Artzain Zakur Txapelketaren 44. edizioa eta bederatzia artzain aritu ziren lehiaketa, eta gehienak eskualdekoak: Antonio Alustiza aresoarra *Ttiki* eta *Bat* zakurrekin, Joxe Mari Ixtilart amaiurtarra eta *Lagun*, Pedro Ansa aranoarra eta *Jai*, Jorge Oteiza ornoz-mugairiarra eta *Azeri* eta Josetxo Billabona leitzaarra eta *Argi*. Guztien artean, azken urteetan jaun eta jabe den Antonio Alustiza aresoarra atera zen garaile.

Nafarroako bere hamabigarren txapela jantzi du aurten aresoarrak eta abuztuaren 28ko saioan 427 puntu eta



UTZITAKO ARGAZKIAL

Duela bi urteko edizioan, Antonio Alustiza saria jasotzen.

200 euroko lehenbiziko saria eraman zituen *Ttiki*-rekin. Eta horrekin batera, *Bat* txakurrarekin, bigarren saria ere bai, 424 puntu eta 145 euro. Orain, igande honetan, irailak 18, Atxondon (Bizkaia) jokatu den Euskal Herriko Artzain Zakur Txapelketan izanen da.

Amaiurko Jose M^a Ixtilart hirugarren gelditu zen, *Lagun* zakurrarekin (412 puntu eta 135 euro); Pedro Ansa aranoarra eta *Jai* bere zakurra

laugarren izan ziren sailkapenean (187 puntu eta 100 euro); Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza eta *Azeri* bosgarren (174 puntu eta 95 euro) eta Josetxo Billabona eta

Argi zortzigarren (43 puntu). Antonio Uharte, Jesus Mari Errazkin eta Jabier Fernandez izan ziren parte hartu zuten bertze artzainak.

Gainera, Pedro Ansa eta Josetxo Billabonak hobekien jantzi-tako artzainen saria eraman zuten.

DATUA

8

TXAPEL

irabazi ditu jarraian Antonio Alustizak.

BERTZE SARITUAK

Artzain Egunaren bane, bertze hainbat lehiaketa ere egin ziren eta sarituetako aunitz eskualdekoak izan ziren.

Ardi latxaren esnearekin egindako Nafarroako XXX. gazta lehiaketan, erraterako, Jose Jabier Sestorain leitzaarra zazpigarren gelditu zen eta Urdazubiko Manuel Bengoetxea zortzigarren. Honenbertzez, urrian jokatu den Euskal Herri mailako txapelketan Nafarroa ordezkatu dute.

Nafarroako ardi latxaren esneki errendimendua XXVIII. lehiaketan, mutur zuriko ardietan, Juan Jose Irungarai azpilkuetarra nagusitu zen eta Manuel Bengoetxea urdazubiarra hirugarren gelditu zen. Mutur zuriko bildotsetan, berriz, bigarren gelditu zen Juan Jose Irungarai azpilkuetarra eta hirugarren Manuel Bengoetxea urdazubiarra.

XXVIII. ardi latxaren lehiaketa morfologikotan, mutur zuriko bildotsetan, hirugarren saria Iturengo Isidro Baztarrikarentzat izan zen eta mutur beltzeko bildotsetan, Arizkungo SC Irigoienek irabazi zuen.

F. LANCHAS
Akabidulenta eta berriztatzaile
Parkes eta parket flutatzaile
jartzaile
Mota gutxietaiko zolak
Tel: 948 630 755 | M: 607 406 781

carrho
guztiak ongarri
Orain ongarriak ditugu
1984ko abuztuaz
www.carrho.net

ikusi-makusi
ikusi-makusi
Ondak, zortak, zortak, zortak
Haur, gazte eta helduentzat
ORDUTEGIA: astelehenetik larunbatera 10:00-13:30 | 14:30-20:00
Kolon Izardetxeak - Etxebarriko Erreka | 5000X BILBAO | 945 413 380

2011

BESTAK

IGANTZI



*Igantziako Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei*

GORA SANI MIGELAKI
borzud
ZORPETA - HORTISTETA
948 631 521

Carlos Txoperena
mendik garbiketak eta landaketak
ITXITURAK
Ongi pasatu
Larrungarriak!!
Tel: 948 637 477
637 486 124
LESAKA

ALBINEA
ostalua jatetxea

ONGI PASA BESTAK

Karrika Nagusia
IGANTZI
948637497

IngeBrand
Fernando Descalzo Echeverría
Elektrikari-Ingeniaris

Instalazio elektrikoak
Mantentze-lanak
Mantentze-irratziak
Zerbitzu teknikoak eta abar

Latsaga, 22 - 3. Esk. - IGANTZI
948 637 607 · 687 871 444
fernando.descalzo@ingebrand.com

IGANTZI
Irailaren 28tik
Urriaren 2ra

Lourdes IBARLUZEA IRURETA | Alkatea

«Besta egunetan plaza ingurua trafikoarentzat itxia egonen da, urteko bertze egun batzutan egiten den bezalaxe»



Udaletxearen barnetik gauzen pertzeptzioa erabat aldatzen dela aitortu digu Lourdesek, eta «bertzeek lehenetik egin dituzten lanez hartzen den ikuspegia norbera alde honetan dagoenean ere aldatu egiten da. Ez da gauza bera gauzak kanpotik ikustea edo barnetik ikustea». Izan ere, maiatzaren 22az geroztik Igantziko Herriko Etxean dauden alkate-zinegotzi guztientzat hauxe baita herri baten kudeantzarekin duten lehenbiziko kontaktua. «Gogotsu eta ilusio handiarekin gaude denak —dio Lourdesek— eta aukera hau probexuz eskertu nahi ditugu herritar guztiak guregain jarri duten konfidantzarengatik. Espero dugu ez hutsegitea».

Eskuartearen dituzten egitasmoen artean «aitzineko udalbatzak hasitako lanak bukatzea» izanen direla nagusiki aipatzen digu Lourdes Ibarluzeak. Medikuaren kontsulta handitzea dago horien artean, eta baita hilerria haunditzea ere. «Oraingo kontsulta ttikia gelditu da eta zoritxarrez etxe horrek ez du aukera gehiegirik ematen haunditzeko. Aitzineko udalbatzak eginak zituen estudio batzuk eta ikusi egin beharko dugu nola segitu edo zer egin. Eta gero, kanposantua handitzeko egitasmoa ere hor dago. Ez dakit, joanen gara ikusten». Dena den, udal gehienek duten zorpetze maila dela-eta Igantziko udalak proiektu berriak aitzinera eramateko zailtasunik ikusten ote duen galdetuta, ez du aparteko zailtasunik ikusten. «Dirulaguntzen arabera egiten dira gauzak».

LA VILLA JATETXEA

Larunbata eta igandetan
afariak

ONGI PASA BESTAK

Karrika Nagusia, 14 · IGANTZI (NAFARROA) · T: 948 637 290



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Gainerakoan, aurtengo besten egitarauak, joan den urtekoaren antzera, zazpi egun hartzen ditu. Iraileko azkeneko asteburuan hasiko dira igantziarrak motorrak berotzen eta aurten San Miguel eguna ortzeguna denez, azteazkenetik (bezpera) igandera bertze 5 egun prestatu dituzte adin guztietako herritarretan pentsatuz. **«Egitarauan gauza batzuk urterokoak dira baina badira bertze gauza batzuk gazteekin eta gurasoekin batera prestatu ditugunak, berritasun pixka bat emateko programari».** Eta halaxe da. Egitarauaren xehetasunak hurrengo orrialdean ageri badira ere, aipagarria iruditu zaigu, konparazio batera, hiru egunez ilunabarrean haur eta gaztetxoendako zine emanaldiak programatzea tenis zelaian. **«Gero gazteek proposatuta elektrotzaranga etorriko da larunbatean, edo jazz dantza ikuskizuna...».** Eta berrikuntzen artean, aurten bada bertze berrikuntza bat programarekin baino gehiago besta egiteko tokiarekin zerikusia duena. Izan ere, **«besta egunetan plaza inguru trafikoa erantzat itxia egonen da. Mendi bizikleta jeitsieran eta holakoetan ere halaxe egiten da. Horrela, kotxerik gabe hobe moldatuko gara tarte horretan egoten diren gauzekin».**

Besten egitarauari begiratu zer den gehien gustatzen zaiona galdetuta, Lourdesek ez du zalantzarik agertu. **«Bezperan Biltoki elkartearen egiten den afaria oso polita izaten da niretzat. Gehien bat herrikoak izaten gara eta izugarri ongi pasatzen dut egun horretan. Eta San Miguel egunak ere baditu gauza politik: abesbatzak kantatutako meza adibidez».**

Aurtengo bestek zenbateko aurrekontua duten galdetuta, ordea, ez digu datu zehatzik eman. **«Xehetasun horren berri ez dut —dio Lourdesek— baina pentsatzen dut beti bezalatsu ibiliko dela».** Zernahi dela, ageri da egitarau polit eta txukuna prestatu dela eta zalantzarik gabe, herrikoak izan edo bisitariak izan, Igantziko beste-tara joaten denak izanen du gustoko ikusgarririk bestak irauten duten zazpi egunetan.



OSKAR TXOPERENA
asegurua
Tel: 610507579

yanci
harrobiak
ONGI PASA BESTAKI

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA

DIANOL TELLETXEA ZUZAYA
Tel. 948 63 74 60
31770 Lesaka (Nafarroa)

Gas-olioa etkez etke banatzen da
Kotxe berri eta zaharren salmenta
BESTA EDERRAK PASA !!

OKILA
zuzendegia

- larreak, lathoak, ateak, eskailerak
- oinetako lanak erokorrean

Lander Sein
Mikel Arburua

On egin janak eta kalterik ez edanaki
948 637 249 • Piedade gaina z/g
IGANTZI

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa **BESTA ZORIONTSUAK IGAROI!**

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizlee Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete

Erabilitako landare olioaren biltketa

Zaindu zure ingurumena!
Tel: 902 966 281 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es

TALOTXA

IGANTZI ERAIKUNTZAK,



Pindadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 • 618 90 18 10.

JOSE AGERRE

pinturak



**PINTURA LANAK
OROKORREAN**

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzak
Parket Flotatzailen jartzen dirugu

610 221 528
BERRIZAUN



**DIETISTA • KONTSULTA
MEDIKU NATURISTA**

Legia, 1 behea • BERA
T. 948 63 06 52



Jose Canabal

Instalazio elektrikoak
orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK**

ONGI PASA BESTAK!!

T. 666 57 58 99 • 948 638 039
IGANTZI
josecanabal@telefonica.net

IGANTZI
Irailaren 28tik
Urriaren 2ra



Irailak 24 larunbata

11:30 PATATA TORTILLA txapelketa **16:00** PLATER TIROKETA Ziobin **20:00** herriko DANTZARIEN EMANALDIA **22:00** BERTSO AFARIA, Xabier Silveira eta Julen Zelaieta

Irailak 25 igandea

10:30 Karrika buelta txistulari eta trikitilariekin **11:00** HAURREN HERRI KIROLAK **12:00** VIII. Gazta lehiaketa **16:30** XXXII. ARTZAIN ZAKUR LEHIAKETA **19:00** SAGARDO BESTA, GAZTA DASTAKETA eta trikitixa emanaldia.



Irailak 28 asteazkena BEZPERA

16:00 MUS ETA PARTXIS lehiaketa **20:00** ALTXAFERUA **Ondotik** kankailuak, buruhaundiak txarangarekin karrika buelta herrian barna **22:00** BILTOKIKO AFARIA **00:00** Dantzaldia

Irailak 29 ortzeguna SAN MIGEL EGUNA

10:00 KARRIKA BUELTA txistulariak eta ezpata-dantzariak **11:15** Udalbatza herriko ezpata-dantzari eta txistulariekin batera herriko ikurra aitzinean dutela Herriko Etxetik elizara abiatuko dira meza nagusia entzutera **11:30** MEZA NAGUSIA herriko abesbatzak kantatua **Ondotik** BANDERA ARBOLA doinuari dagokion ikurrin agurra plazan eta HERRIKO EZPATA-DANTZARIEN SAIOA **17:00** PALA PARTIDA Susana Muneta - Maite Ruiz eta Iera Agirre - Maider Mendizabal **18:00** PILOTA PARTIDAK Mikel Goñi - Beñat Mitxelena eta Chafee - Eskudero **20:30** dantzaldia GAUBELA taldearekin **00:00-02:00** dantzaldia GAUBELA taldearekin

Irailak 30 ortzirala

09:00 DIANA txistulariak eta trikitilariak **10:00** PUZGARRIAK **12:00** BETIZUAK eta txaranga **14:00** Baratzondon HERRI BAZKARIA Egaña eta Sustrai Colina bertsulariekin eta txaranga **16:00** PUZGARRIAK **19:30** ZINEA EUSKARAZ tenis pistan: *Biki Bikingoa* **21:00** ZEZEN SUZKOA **Ondotik** MUXIKOAK **00:00** KONTZERTUA

Urriak 1 larunbata

10:00 KARRIKA BUELTA gaiteroekin **11:30** KENPOKAI erakustaldia **12:30** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin **13:00** TOKA TXAPELKETA frontoian **18:00** HERRI KIROLAK: harri altxatze proba, Bera eta Igantziko taldeen arteko konbinada eta herritarren arteko desafioa **20:00** ZINEA EUSKARAZ tenis pistan: *Pagafantas* **22:00** D.J. **24:00** D.J **01:00** ELEKTROTXARANGA **02:00-04:00** D.J.

Urriak 2 igandea

10:30 KARRIKA BUELTA txistulari eta trikitilariekin **11:00** DANZA JAZZ ikuskizuna **13:30** JUBILATUEN BAZKARIA Baratzondon **16:00** HAURRENTZAKO TAILLERRAK **18:30** TXOKO-LATADA **20:00** ZINEA EUSKARAZ tenis pistan: *Sexua New Yorken*.



KULTURA → GURE TXOKOAK ANTOLATUTA

Dantzari Ttiki Eguna irailaren 24an egingen da

Euskal Herriko dantzari gaztetxoak herrian barna ibiliko dira

TTIPI-TTAPA

Hutsik egin gabe, Dantzari Ttiki Eguna egingen da irailaren 24an, Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta. Ibarra, Andoain eta Ierro hauek idazterakoan konfirmatu gabe dagoen hirugarren dantza talde bateko gaztetxoak 09:30ean ailegatu dira. 10:00etan auzoetara banatuko dira herriko dantzariekin batera: batzuk Agerrara joanen dira, bertzeak plaza aldera eta hirugarrenak Illekuetara. Kalejiran eta dantzan ibili ondotik, gosaldu egingen dute eta 12:00etan lamotenean elkartuko dira. 12:30ean denak Altzatera joanen dira dantza saioa eskaintzera eta bazkaldu ondotik, jokoak izanen dituzte Eztegarra pilotalekuan.

HELDUENTZAKO EUSKAL DANTZA IKASTAROAK

Helduentzako euskal dantza ikastaroa antolatu du Gure Txokoa Dantza Taldeak. Irailaren 17tik azaroaren 19ra bitarte izanen da, larunbatetan 12:00etan. Izen-ematea larunbat honetan, irailak 17, egin beharko da.

Udal hautetsien ordainsariak

Uztailaren 28ko osoko bilkuran onartu zituen

Udalak, hautetsien ordainsariak. Horren arabera, Marisol Taberna alkatea dedikazio eskusiboan ari da irailaren 1az geroztik, eta urtean 39.796,96 euroko soldata gordina izanen du, 14 ordainsaritan. Kopuruak urte hasieran udal langileek duten igoera bera izanen du. Bertzetik, hautetsiek 30 euro hartuko dituzte udal organoen bileretara joateagatik. Kopuru bera hartuko dute Udalak ordezkari izan duen bertze edozein erakunderen bileretara joateagatik ere, baldin eta erakunde horietan ez bada kobratzen.

Mendi itzulirako izen-ematea

Norbaitek igande honetan, irailak 18, egingen den hamargarren mendi itzulira joateko asmo baldin badu, jakin dezala, izena eman ahal izateko, aste osoan 18:00etatik 20:00etara Agerra Mendi Elkartearen horretarako aukera izanen dela. Badago izena Internetez emateko aukera ere: www.mendizmendi.com web orrialdean.

Lore Jokoak Labiaga Ikastolan

Aurten bigarren aldiz Lore Jokoak antolatu ditu Labiaga ikastolak. Larunbat hau, irailak 17, izanen da egun handia, eta, bertzeak bertze, kalejira, bikoteka toka txapelketa eta Altzateko frontoian dantzaldia izanen dira eta eguerdian ikastolaren



TESTUA: ANITON ERKIZIA / ARGAZKIA: JOXEMARI TELLETXEA

Auzolanean egindako besta ederrak

Auzolanean egin ditugu aurtengoan ere Agerra auzoko bestak. Aunitzen artean: ardura, lana, laguntza... Komertzio eta enpresa ttiki, Udala... Rifa saltzaille, rifa erosle... Aunitzen lanari eta partehartzeari esker, ezinezkoa litzateke hori gabe. Ez luke mereziko ere, agian, elkarrekin egin ezean. Denon artean denona dena. Bertzalde, zozketako zenbaki saridunak hauek izan dira: 1831, 0171 eta 1916.



ARGAZKIA: JOKIN APEZETXEA

Martxan da Jubiloteka zerbitzua

Lana, Familia eta Bizitza Pertsonala uztartzeko II. Itun Mankomunatuaren ekimenez, abian da aurten ere Jubiloteka zerbitzua, Nafarroako Berdintasun Institutuak sustatuta. Mendekotasun arineko adinekoak zaintzen dituzten familiei aukera bat eman bidenabar, adinekoen arteko harremanak bultzatu, eta ariketa fisikoekin eta burukoekin euren egoera hobetzea da helburu nagusia. Irailaren 6an zabaldu zituen ateak eta abenduaren 23ra arte eskainiko da zerbitzua, astearte eta ortziraletan 10:00etatik 13:00etara. Egunero 10:00etatik 10:15era harrera egingen dute; 10:15etik 11:00etara ariketa fisikoak; 11:00etatik 11:15era hamaiketakoak; 11:15etik 12:45era estimulazio kognitiboa landuko dute eta 12:45etik 13:00etara erlaxazioa eta agurra. Irailaren 2an aurkezpena egin zen eta 25 lagun elkartu ziren. Izen-ematea Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera deituta (948 635036) edo idatzita (ssb@lesaka.net) egin behar da.

bazkaria egingen da. Txarrelak ikastolako idazkari izanen da. Aipatu, ekimenetara ingur-

ratzen direnei baserritarrez jantzita joateko gonbidapena egin dietela ikastolatik.

Irailaren 23an, berriz, Nafarroako konkistatzen urteurrenari buruzko hitzaldi bat izanen da.



BORTZIRIAK

AZPIEGITURAK → SASOI ESKABAZIO ENPRESAK EGINEN DU HIRU HILABETEKO EPEAN

487.419 euro gostako da Ibardingo ur-hornidura eta saneamendu lana

Bentetako filtroetako ur zikinak ere saneamendu sarera bidaliko dira



UTZITAKO ARGAZKIA

lasolatik Berara jaisten den hoditik ur-hartunea eginen da.

TTIPI-TTAPA

Bera-Lesaka ur hornidura bateraturako lanen lehen fasean Ibardingo ur-hornidura eta saneamendu lanak Sasoi Eskabazioak enpresari eman dizkio Berako Udalak, 487.419,20 euroren truke. Lanak hiru hilabeteko epean bukatu beharko ditu.

Zehazki, Marisol Taberna Berako alkateak aipatu digunez, Usate-

gieta aldean lasolatik herriruntz jausten den hoditik ur hartune bat eginen da eta hontatik zabortegi inguruan eginen den bonbeo estazioko depositoa beteko dira. Ponpatze estazio honetan Ibardingo ur-biltegiraino ura era-

manen duten ur-ponpak izanen dira.

Bertzetik, eta ur hornidurarako zuloak irekiko direla probexuz, Ibardinen dauden saneamenduko sarearen filtroetatik ur-zikina bidaliko da herriko saneamendu sarerat.

Zabortegiko ur zikinak dagoeneko herriko sarera daude bideratuak, eta Ibardingo filtroetako ura ere zabortegiko hodiaren bidez garraiatuko da. Ibardingo filtroak Ibardingo denden azpiko aldean daudenez, lehendabiziko zatiko altuera gainditzeko, ur hauek ponpatu egin beharko dira eta, horretarako, ur-zikinentzako ponpatze estazio txiki bat ere eraikiko da Ibardinen.

UDAL BULEGOA

Herriko Etxean eginen diren lanek irauten duten bitartean Berako udal bulegoak Kultur Etxera eta Beralandetara aldatuko dira.

IKASTAROKAK → SANTIAGO JORGEREN ESKUTIK

Multi-Arte programa emanen da aurten Bera eta Lesakan

TTIPI-TTAPA

Artearekin lotutako ezagutza ahalik eta sakonena lortzeko eta ikasleek sormena bere osotasunean garatzeko 'Multiarte' adierazpen artistikoaren programa landu nahi du ikasturte honetan ere Santiago Jorge margolaria Lesakan eta Beran.

Kanarietako La Palma sortu eta Teneri-

fen, Madrilan eta Galizian pinturarekin, grabatuarekin, diseinuarekin eta bertze adierazpen artistikoekin zehazki duten ikasketak egin ondotik, Lesakan bizi den artistak urritik aitzinera astelehen eta astearte arratsaldetan eskainiko du 6 urtetik goitiko ikasleei zuzendutako ikastaroa, 17:00etatik 18:30era eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Santiago Jorge margolaria, ikastaro batean.

18:30etik 20:00etara, Beti Gazte elkartearen.

Berako Gure Txokoa elkartearen, berriz, larun-

batetan 10:30etik 12:00etara eta 12:00etatik 13:30era eskainiko da programa.

ANSONEA JARDUN
Eguneko menua
Menu begetarianoa
Menu mikrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bokatak • Erraztiak
948 630 763
BERRA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Alkatza, 17 - BERRA

LANA

Abuztu hondarrean 1.095 langabetu ziren eskualdean

TTIPI-TTAPA

Udaberrian beheiti egin bazuen ere, udan goiti egin du langabeziak eskualdean. 1.046 langabetu zeuden eka-hondarrean Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak, uztailean 25 gehiago ziren (1.071) eta abuztu hondarrean bertze 24 gehiago dira, 1.095 dena (%2,24ko igoera, Nafarroa osoko bulegoaren artean handiena). Abuztuan 440 kontratu gauzatu dira Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 37 bakarrik izan dira mugagabeak. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 432tik 438ra goiti egin du langabeziak abuztuan, eta adin tarthehorretako emakumeen artean, 508tan mantendu da. 25 urtez beheitiko emakumeetan 49tik 66ra igo da langabetu kopurua eta gizasemeetan, 82tik 83ra igo da.

Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten eta abuztuan 663tik 679ra igo da, gainera, langabetu kopurua. Industria arloan ere 169tik 184ra igo da. Eraikuntzan, aldiz 141etik 135era jaitsi da langabetu kopurua. Nekazaritzan, lanik gabeko daudenak mantendu egin dira, 26 lagun, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean, 71 lagun daude langabezian, uztailean baino 1 guttiago.

HERRIKO ETXEA → ONIN ETA BIURRANA ERREKAK

Uholde Arriskurako Planak eragindako desjabetze gastuei ezin izaneren lieke aurre egin Udalak

Aitor AROTZENA

Biurrana eta Onin erreken Uholde Arriskurako Planaren inguruko lanetan ibili da uda honetan Herriko Etxea. Izan ere, Bilduk jakinarazi duenez, «Udalean sartu ginenean ohartu ginen planaren ondorioz bizilagun aunitzek kalteak jasaten zituztela beren jabetzetan eta beraiekin biltzea erabaki genuen». Proiektua ekainaren 16an jarri zen erakusketa publikoan eta hilabete berandua go bukatzen zen alegazio epea. Kaltetuek beraien alegazioak prestatzeko aukerarik ez zutelarik, Kantauriko Ur Konfederazioak alegazio epea bertze hilabete batez luzatzea onartu zuen. Konfederazioarekin izandako bileran proiektuaren kostuaren inguruko bertze jakingarri batzuk ikasituen Udalak. Izan ere,

obraren aurrekontua 2.015.587 eurokoa eta 2007ko Espainiako aurrekontuetan planaren zatitza onartutako dirulaguntza 2.289.900 eurokoa bada ere, lurren desjabetze gastua 642.253,50 eurokoa da eta Konfederazioak aipatutakoaren arabera, gastu hori udalaren gain joanen litzateke, «aitzinetik jasotako informazioaren ondorioz genituen uste batzuk gezurtatuz».

Honela, Bilduren ustez, «nahiz eta plana herriarentzat onuragarria izan daitekeen», gastu horri ezin diola aurre egin ikusirik alegazioa jarri da Udaletxetik. Desjabetzeak ahal den neurrian murrizteko eskatu da, horrela planaren kostua murrizteko. Modu honetan, ur-bideraketa planak duen kostua, hasiera batean uste zen bezala, Konfederazioak



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bixente Igartzabal eta Alejo Sarobe bikain Embrunmanean

Frantziako Alpe Garaietako Embrun hirian egiten den Embrunman distantzia luzeko triatloio gogorraren 28. edizioa jokatu zen abuztuaren 15ean. Munduko espezialistarik onenak biltzen dira, adituen ustez gisa honetako probetan dena egitera. Aurtengoan 990 kirolarik 3,8 kilometro igerian, 188 kilometro bizikletaren gainean eta maratoia, 42,195 kilometro lasterka egin behar izan zituzten. Azkeneko lau urteotan egin duten moduan, *Beti Gazte-Lesaka.net* taldeko Bixente Igartzabal eta Alejo Sarobe ere izan ziren lasterketan. Biek proba bukatzea lortu zuten eta Bixentek meritu handiko 21. postua eskuratu zuen (6. bere kategorian), 11 ordu, 18 minutu eta 21 segunduko denborarekin. Igerian ez zen ongi ibili (762. postuan atera zen uretik), baina bizikletan partzial bikaina egin zuen (5. izan zen) eta maratoian ere ongi moldatu zen (33. postua). Alejo Sarobek lau ordu gehiago behar izan zituen (15 ordu, 23 minutu eta 44 segundu), baina hala ere hirugarren aldiz proba bukatzea lortu zuen eta *finisher* izateak zerbait erran nahi du, distantzia luzeetako triatloietan gogorrenatza jotzen den Embrunmanaz solasterakoan. Aipatzekoa da Larra-Larraun bizikleta proban ere hirugarren postua eskuratu zuela Bixente Igartzabalek irailaren 3an.

bere gain hartuko luke.

Gai honetan eman-dako hondar pausua, Konfederazioari alega-

zio epea bertze hilabete bat gehiago luzatzeko eskatzea izan da. Horrela, bai zuzenki kal-

tetuak direnak, beraien kexak eta alegazioak behar bezala egin ahal izaneren lituzkete.

MERKATU TTIKIA

MERKATU TTIKIA

15€
10€
5€

OINETAKOEN
MERKATUA

IRAILAREN 17an, Lesakan
Golezko 10:00-20:00 (eguerdian itxi gabe)
DENDAN BERTAN

UDAKO DENBORALDIKO OINETAKOAK

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → ARRATSALDETIK AITZINERA

Larunbat hau besta eguna izanen da

Herriko Ostatuak hainbat ekitaldi antolatu ditu

Iruñe eta Itsaso

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Herriko Ostatuak larunbat honetarako, irailak 17.

- 17:00etan mus txapelketa izanen da (16:30 baino lehen apuntatu). Lehenego hiru bikoteentzat sariak izanen dira: txapeldunentzat Elgorriaga bainuetxean zirkuitoa eta bazkaria, bigarrenarentzat Moet chandon 2 botila eta hirugarrenarentzat aretze saiheskiak. Bikoteko 10 euro ordaindu behar da.
- 20:00etan triki poteoa Itsaso eta Iruñekin.
- 21:30etan bertso afaria; Julen Zelaieta eta Oskar Estanga bertso-lariek. Ortzirala apuntatzeko azken eguna.
- 00:00etan *Heinekin besta DJ PISTOL* Sekin.
- 04:00etan pintxoak dohainik.

Urritzokietan bestak

Urtero bezala Urritzo -kieta auzoan Santa Krutz bestak ospatuko dituzte asteburu honetan.

IRAILAK 14, ASTEAZKENA

- 11:30ean meza Santa Krutz ermitan. Ondotik hamaiketako.
- 17:30ean txokolatada Sainduneko zubian.
- 20:00etan afaria auzotarrentzat Sainduneko zubian.

IRAILAK 18, IGANDEA

- 11:30ean meza nagusia Santa Krutzen.
- 12:30ean trikitilariak.
- 14:00etan asaua Sainduneko zubian.
- Bazkaldu ondotik mus eta partxis txapelketak.
- 17:30ean jokoak: kautzu botatzea, zaku lasterketa, basurde eme jaurtiketa...
- 18:30ean dantzaldia trikitilariekin.
- 20:30ean afaria.
- Ondotik trikitilariak.

Hegaztien jardunaldiak

Hegaztien inguruan, jardunaldiak antolatu ditu Bertiz Partzuergo Turistikoko astebururako:

IRAILAK 16, ORTZIRALA

- 18:00etan jardunaldi eta hegaztien inguruko argazki, eskultura eta marrazki-margo erakusketaren inaugurazioa Kultur Etxean.
- Ondotik erakusketaren bisita gidatua.
- 19:30ean *Haizearen nomadak* filmaren emanaldia Kultur Etxean.

IRAILAK 17, LARUNBATA

- 11:00etan hegazti migratzaileen behaketa tailerra Lizaietan.
- 19:00etan hegaztien migrazioari buruzko hitzaldia Kultur Etxean.
- 21:00etan ezagutzak trukatzeko afari-tailerra.

IRAILAK 18, IGANDEA

- 09:00etan hegazti migratzaileen behaketa tailerra Lizaietan.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Sara eta Etxalarko Udalen arteko hitzarmena

Ibantelitik Hiru Muga bitarteko eremuan, osotasunean eta integralki ordenatzeko akordioa sinatu zuten hilaren 4an Sara eta Etxalarko Herriko Etxeek. Horretarako, dokumentatu egin dituzte usoak Etxalarko sareetara hurbiltzeko Sarako demioetan dauden bederatzi trepak. Migel Mari Irigoien eta Jean Battite Laborde Etxalar eta Sarako alkateek sinatu zuten agiria. Irigoienek aipatu zuenez, «dokumentu honekin errespetua eman nahi diegu inguruotan ibiliko diren mendizaleei, sareetan ariko diren usazaleei eta eskopetarekin arituko diren ehiztariei, denak gaur egun indarrean dagoen ehizaren legearen barrenean daudelako». Aldi berean, ingurumenarekin eta lege babestuak diren hegaztiekin errespetua izateko eskatu zuen.



ARGAZKIA: AMAIA ZELAIETA

Etxalarko trikitilariak ETB1eko Euskadi Tropikala programan

Abuztuaren 10en herriko trikitilariak ETB1eko *Euskadi tropikala* programan izan ziren. Programa honetako kazetarietako bat Joseba Olagarai herritarra da eta bere eskutik joan ziren. Errepikatze moduko esperientzia polita izan zela erran dute.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Euskal Herriko harri txikien txapelketa

Abuztuaren 10ean Euskal Herriko harri txikien txapelketa jokatu zen Aian. Guztiek ere lan polita egin zuten baina aurten ere Aimar izan da txapelduna. Ikusten da Xabier Ariztegi *Santxin* aizkoraz gain, harri altxatzen ere onenen artean dagoela.

AZPIEGITURAK → DIRULAGUNTZAREKIN

San Juan Xarren konponketa gehiago egiteko luzapena eskatu du Udalak

Dirulaguntza jasotzeko lanak irailaren 30erako eginak egon beharko luketeelako egin da eskaria

TTIPI-TTAPA

San Juan Xar alderdia berreskuratu eta aisiaren gune bat sortzeko, dirulaguntza jasoa du Udalak Cederna Garalur elkartearen bitartez, zehazki, Landa Garapenareko 2007-2013 urteetarako Programako Leader 4. ardatzaren barne.

Aurreikusitako dirulaguntza 3.930 eurokoa da, baina horretarako 9.000 euroko gas-

tua egin beharra dago. Horren harira, aitzineko Udalak iturria eta inguruan zenbait moldatze lan agindu zituen. Maiatzean herriko Talotxa eraikuntza enpresa aritu zen horretan.

Baina dirulaguntza jaso ahal izateko oraindik lan gehiago egin beharrak dira: seinalizazioa paratu, xenda moldatu, barandillak paratu... Eta dirulaguntza jasotzeko lanak irailaren 30erako eginak egon behar dutela kontuan hartuz, Udalak luzapena eskatu dio Cederna Garalur elkarteari, dirulaguntza justifikatu ahal izateko. Udaletik adierazi digutenez, urrian jakinen da luzapena onartua izan den ala ez.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Udal hautetsien ordainsariak

Udal berriak erabaki du zein izanen diren hautetsien aurtengo ordainsariak. 2011n 16.090,25 euroko dirulaguntza hartu zuen Udalak hautetsiei karguan aritzeagatik emateko. 2011ko ekainera bitarte, aitzineko Udalbatzak partida horretatik 7.096,88 euro gastatu zituen eta 8.993,37 euro sobratzen dira. Horrekin honela egitea erabaki da: alkateari osoko bilkuretara joateagatik 320 euro ematea bilkura bakoitzeko, dedikazioa haundiagoa delako, eta zinegotziei osoko bilkuretara joateagatik 180 euro ematea bilkura bakoitzeko.



2011-12 ikasturtea IRUNen
INGELESA eta FRANTSESA

- Haur, gazte eta helduentzat
- Astean behin edo bi egunetan
- Cambridge-eko azterketan prestaketa
- Enpresentzako ikastaroak

LACUNZA

irunen luis mariano plazan
0900 011 912 - 902 012 912 - www.lacunza.es

ARANTZA

HEZKUNTZA → 2011/2012 IKASTURTEA

52 ikaslerekin eta 9 maixurekin hasi da ikasturte berria

Eskolan iaz baino unitate bat gehiago dago, hiru urteko zortzi ikasleek taldea osatu baitute

Nerea ALTZURI

Joan den irailaren 7an, eskualdeko hainbat ikastetxetan bezala, ikasturte berria abiatu zen herriko eskolan. Maixuak irailaren lehenan hasi ziren udako oporraldiaren ondotik, eta joan den astetik, neguko denboraldian sartu da eskola.

Aurten, gainera, zortzi ikasleek eskola haundia estreinatu dute. Bartzuk Pelettiki haur eskolatik heldu direnez, beharbada ez dute arrotza izanen eskolako martxa.

Iaz baino unitate bat gehiago du eskolak, Maddalen, Iraide, Beñat, Saioa, Oinatz, Kattin, Ainize eta Oierrek hiru urteko ikasleen taldea osatzen baitute. Eskola barreneko espazioa moldatu behar izan dute, Haur Hezkuntzako gela berri hori izateko.

Guzira, 52 ikasle dauka aurtengo ikasturtean. Aitor Elexpuru zuzendari eta irakasle arduretan ariko da; eta gainerako maixuak Ixabel Danboriena eta Juana Larralde bertakoak; Ha-

ritz Arriola sunbildarra; Naiara Diez eta Karmen-txu Iriarte irundarrak; Igone Elizondo doneztebarra; eta Anartz Minner Astigarragakoa dira. Bertze maixu bat ere bada baina lerro hauek idazterakoan, ez zuten horren informaziorik.

Gainerakoan, lehenbiziko egunetik jantokiko zerbitzua abian da iaz bezala, eta hilabete honetan eskola goizez bakarrik izanen dute.

ESKOLAKO LANAK

Ikasturte berria presartzeko zenbait lan egin dira eskola barruan eta kanpokaldean: patioa margotua dago; irailaren 2an eskolaren desinfektazioa egin zen; biharamunean, Guraso Elkarteak auzolaneko ikastetxea garbitu zuten. Iaz ere, eskolako leihoak aldatu dituzte. Horretarako, Udalak leihoak berritzeko lanak Ireki Leihoak enpresari esleitu zizkion, 30.350,78 eurotan, BEZa barne. Udalak 21.975,08 euroko dirulaguntza jaso zuen Nafarroako Gobernutik, lan horiek egiteko. Zein leiho aldatu jakinaraziko dio Udalak enpresari laguntza hori gastatu arite.

Bertzetik, eskolako berogailua berritzeko lanak Kalbiosu enpresari esleitzea erabaki zuen Udalak, 34.136,22 euroan, BEZ-a barne.



ARGAZKIA: AITOR ELEXPURU
DBHko ikasleak lehenbiziko eskola egunean.



ARGAZKIAK: MAIDER MITXELENA

Eguzkialdeko besta arrakastatsua

Hitzak soberan dira. Atera kontuak, euriak ere ez zuen galdu nahi izan Eguzkialdeko bestako giroa. Nahiz eta goiza euripean hasi gero atertu egin zuen eta ederki atera ziren aurreikusitako ekitaldiak: Aurtizko joaldunak, herri kirolak, herri bazkari arrakastatsua, musika, sega desafioa auzotarren artean... Giro ederra izan zen.

Medikuaren etxea alokatua

Uztailaren 1eko ple-noan, medikuaren etxe-ko bizitza alokatzeko en-kantea eta plegu adimi-

nistratibo berria onartzea erabaki ziren. Horrela, inter-esatuei izen emateko epea irekiz, bi eskaintza aurkeztu ziren. Azkene-an, Estitxu Iparragirre Madariagaren proposa-

mena onartu du Udalak, eskaini duen alokairua (325 euro) hoberena izan delako. Hala, hilabete mordo oxken ondotik, medikuaren etxe-ko bizitza herri-itar batek alokatu du.

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 941 577 131
E-posta: imanols@iturria.com
Eskatu zure kontua kongresu-erik gela

ZUBIONDO
Jatetxea
BARRIOZUBIA JATETxea
Alata KARRIKO
BERA NAFARROA

A
ATERPE
T. 941 434 119
ARANTZA
www.arantzita.net

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → GAZTE BURRUNBAK ANTOLATUTA

Irailaren 23an eta 24an ospatuko dira aurten besta ttikiak

Horrez gain, hilaren 24an Nafarroako nekazaritzaren eguna izanen da

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beterik dagoz aurtengo besta ttikiak, Gazte Burrunba taldeak adin guztietako jendearendako egitaraua osatu baitu irailaren 23 eta 24rako. Udalaren eta herriko ostatuaren laguntzarekin. Horrez gain, 24an, Nafarroako nekazaritzaren eguna egingen da, UAGNek antolatuta eta bezperan merkatarikarriak aterako dira.

IRAILAK 23, ORTZIRALA

- 10:30etik aitzinera, egun guztian, Doneztebarrak Merkatarikarri Elkartean eskutik Udazkeneko Merkatarikarri Intzarkardi karrikan. Merkatariek promozio bereziak eskainiko dituzte. Argazki erakusketa ere egingen da eta arratsaldean, haurrendako jolasak izanen dira.
- 19:00 aldera pintxoak plazoletan.
- 20:00etan Herriko Etxetik altxaferoa botako da Erreka Pilota Eskolaren eskutik.
- Horren ondotik, karririkadantza izanen da trikitixekin.
- 21:30ean Gazte Burrunbaren zopa-jatea Santa Maria jatetxean. Izen-ematea Santa Marian egin behar da irailaren 21a baino lehen.

- 00:30etik 03:30era dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin.

IRAILAK 24, LARUNBATA

- 11:00etatik aitzinera egun guztian, Nafarroako UAGN sindikatua- ren eskutik, Nafarroako Nekazaritzaren Eguna: 11:00etan meza Eduardo Zubikoa tenorearekin eta Andrea Jimenez sopranoarekin; 11:45ean Zubietako joaldunak; 12:00etan Nafarroako produktuen erakusketa eta dastaketa, haurrendako tailerrak, kalejira Iruñeko Txaranga Jaiak-ekin, azienda erakusketa eta puzgarriak; 12:30ean mexikarrak; 13:00etan dastaketa dohainik; 13:30ean herri kirolak...
- 13:00etan trikipoteoa, plazoletatik abiatuta.
- 14:30ean Gazte Burrunbaren bazkaria Santa Maria jatetxean. Izen-emate jatetxean irailaren 21a baino lehen.
- Bazkalondoa trikitixa doinuek alaituko dute.
- 17:30ean erremonte partida frontoian.
- 18:00etan Erreka Dantza Taldearen erakustaldia frontoian.
- 20:00etatik 22:00etara eta 00:30etik 03:30era dantzaldia GABEZIN taldearekin.

Eskubaloia liga

Errekako eskubaloia talde seniorrak irailaren 24an hasiko du Liga, jardunaldi horretan atsedenaldia izanen duen arren. Maila horretan bi talde



ARGAZKIA: ELREMONTE.BLOGSPOT.COM

Koteko Ezkurak hamaikagarren buruz buruko txapela lortu du

Koteko Ezkurak hamaikagarren aldiz jantzi du erremonteko buruz buruko txapela, hamalagarren finalean. Irailaren 3an, Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokatu zen finalean 30-22 irabazi zion faborito atera zen Migel Mari Urrutia saldiastarrari. 1995ean lortu zuen lehenbiziko txapela Ezkurak, eta irailaren 3an, hamasei urteren ondotik, bere palmaresa handitu zuen. 38 urte dituen arren, sasoi onean dagoenean jokoan ez du parekorik Kotetok. Ezkurak gustura akitu zuen partida eta garaipena Tomas Rekondo Lesakako lagunari eskaini zion.

AZPIEGITURAK → LEHENDABIZIKO FASEA EGIN ONDOTIK

Eguneko zentroaren bigarren faseko lanekin hasi da Mariezkurrena enpresa

Eguneko zentroa eraikitzeke lanak bide onetik doaz. Izan ere, lehenbiziko fasean egitura egin ondotik, orain bigarren faseari ekin diote. Udalak Mariezkurrena enpresari esleitu dio obra, 360.000 eurotan eta hau hasia da lanean. Egitura itxi eta teilatua ematea izanen dira bigarren fase honetan egin beharrekoak eta azarorako egina egin beharko du.

FUTBOL-ZELAI BERRIA URRIRAKO

«Futbol-zelaiko obraren erditsua

egina dago». Halaxe baieztatu dio Miguel San Miguel alkateak TTIPI-TTAPARI. Joan den astean hasi ziren belarra paratzen eta dena ongi joanez gero, urri erdialderako futbol-zelaia prest egonena litzateke. Belarraren ondotik, itxiturak eta aldagelak egin beharko dituzte. Dena den, alkateak adierazi duenez, hasiera batean aldagelak prefabrikatuak izanen dira. Bigarren fasean egingen dira behin betikoak.

izanen dira, zortzi taldekoa bat eta bederatzikoa bertzea. Errekari A taldean egokitu zaio, Anaitazarra, Anaitasuna, Tafalla, Itxako, Bardeak, Peralta eta Nafarroako Unibertsitatea taldeekin. Talde bakoitzako lau lehenbizikoak Txapeldunen taldera joanen dira eta zortzi horien artean lau lehenbizikoek beraien artean *Play Off* bat jokatu dute Ligako txapelduna zein den erabakitzeke.

Jendea behar dute Mendi abesbatzan

Mendi abesbatza jende bila dabil. Adin eta ahots guztietako jendearen beharrean daude, izan gizonezkoak edo izan emakumezkoak. Baina batez ere, gizonezkoak eta mutil gazteak behar dituzte. Ez dute solfeo edo musika ikasketarik eskatzen, eurek diotenez, «ez baikara eliteko abesbatza». Kantatzeko eta ongi pasatzeko gogoia izatea dira eurentzat garrantzitsuenak. Urriaren 5ean hasiko dira entsaioekin, Doneztebeko Karrika Nagusiko 9. zenbakian, behe-itiko solairuan eta nahi duen guztia ongi gertatzen izanen dela jakinarazi dute. Informazio gehiagorako: 656 837233.

HEZKUNTZA → 2011/2012 IKASTURTEA

Isabel Agirrebengoa da eskolako zuzendari berria

70 neska-mutikok hasi dute ikasturte berria

Maidar PETRIRENA

Uztailean eta abuztuan ludoteka zerbitzua izan zen, eta orain, ludoteka akitu eta 2011/2012 ikasturtea hasi dute eskolan neska-mutikok.

Irailaren 7an hasi ziren klaseak eta guztira 70 ikasle izanen dira, zortzi ikasle berri barne. Lehenbizikoz eskolara doazenak hauek dira: Beñat, Maialen, Iker, Eneko, Eki, Julen, Iraia eta Miguel.

Bertzalde, aipatzekoa

da, zuzendari aldaketa ere izan dela. Uztailaren 1az geroztik, Isabel Agirrebengoa Mazkiaran dugu zuzendari berria.

Bertze berrikuntza bat ere badago eskolan. Orain arte, beheko eskolan 3, 4 eta 5 urtekoak egoten ziren eta goitikoan gainontzekoak. Aurten, berriz, 5 urtekoak goitiko eskolara eraman dituzte eta klasean lehenbiziko mailakoekin egonen dira. Beraz, beiko eskola 3 eta 4 urtekoentzat gelditu da.

Gisa berean, erran, jangela zerbitzua ere badagoela eta honek 34 ikaslerekin eginen duela lan ikasturte honetan. Jangela zerbitzua eskolarekin batera hasi zen.



ARGAZKIA: ENERITZ REKARTE

Abuztuaren 31n akitu zen ludoteka zerbitzua eta orain eskolara itzuli dira gaztetxoak.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Mendi irteerak Etxalarrera eta Baztanen

Irailaren bi irteera egiten dituzte Ulibeltzak Mendi Taldekoek. Igande honetan, hilak 18, Etxalar-Sunbilla egiten dute, 07:00etan plazatik aterata. Eta bertzea Beartzun-Auza izanen da, 06:45ean abiatuta. Argazkia Taillon mendikoa da (3.144 metro).

COsas DE CASA
www.cosasdecasasantesteban.com

ESPOSIZIO BERRIAREN INAUGURAZIOA
Muebleak, koltxoak...

Irailak 23 - Ostirala - DONEZTEBE

Oporri zuzenak:
12:30ean Luntxo
Sekulako eskaintzak

EGUN OSOAN EKITALDIK ETA FESTA
ETORRI, GONBIDATUAK ZAUDETE!

TTAPIA, 550 zbk. 2011.09.15

2011 proiektu zenbakia
15.996

José I. González Enguita
Berritzaile eta itzultzaile

tel. 666 235 466



ARGAZKIA ETA TESTUA: ALIZIA OLAIZOLA

Patata ederrak Behobian

Patata ederrak bildu dituzte aurtengo udan Behobia etxeko baratzean. Pablo Irazokik erakusten digun bezala, ezkerrekoak 1,350 kilo eta eskuinekoak 1,200 kilo dituzte. Bere amatxi Beatriz Manterola da baratzezaina.

URROZ

BESTAK → IRAILAREN 28TIK URRIAREN 2RA

Herriko argazki zaharren erakusketa zabalduko da San Migel Egunean

Igandeko aizkora apustuan Olano, Kastro eta Mugertza anaiak ariko dira

ASTEAZKENA 28 Bezpera

20:00etan altxaferoak eta ezkil jotzea. **21:30ean** zopak Herriko Ostatuan. **00:30ean** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin.

ORTZEGUNA 29 San Migel Eguna

11:30ean Meza Nagusia. **12:30ean** herri kirolak herriko gazteen artean. **Ondotik** herriko argazki zaharren erakusketa irekiko da. **13:30ean** zizka-mizkaka Herriko Ostatuan Udaren eskutik herritarrentzat. **17:00etan** Go-



UTZITAKO ARGAZKIA

Erran beharrik ez dago argazki hauek ez direla oraingoak. Goikoa, adibidez, 1952. urtekoa da. Horiek eta bertze hainbortze ikusgai izanen dira Sanmigeletan.

rriti eta bere animalien saioa. **Ilunabarrean** patata tortilla lehiaketa. **Biertartean eta gauzez** dantzaldia JOXEANJEL akordeoilariarekin.

ORTZIRALA 30

11:30ean mus txapelketaren hasiera. **14:30ean** herri bazkaria bertsolari eta txiste

kontalariarekin. Bertsolariak Anjelmari Peñagarikano eta Iker Zubeldia izanen dira. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia AGERRALDEarekin.

22:00 aldera afaria plazan zingar eta ziztorra-ekin.

LARUNBATA 1 Haurren Eguna

11:00etan haurrendako jokoak. **12:00etan** mus txapelketaren finala. **17:00etan** gazteen arteko pilota partidak. **18:00etan** herritarren arteko jokoak. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

IGANDEA 2

11:30ean puzgarriak eta kart autoak frontoian. **13:00etan** aizkora apustua: Arkaitz Olano eta Raul Kastro, Mugertza anaien kontra ariko dira. **17:30 arte** puzgarriak eta autoak izanen dira. **17:30ean** trikitalari gazteen emanaldia. **20:00etan** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin, jendea nekatu arte, eta beste agurrara.

Urrozko Udalak

Besta zaharriak opa dizkizue urroztar eta bisitari guztiei

Ingurulan

ONGA PASA BESTAK!

616095420 Urroz

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!

Berrira arazi taldea

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detarileak eginez gero: KOTXEKO LOREAK OPARI

MAIAGARTE 17:45 SA 22:00

Herriko Udala, Herriko Ostata eta Herriko Argazki Zaharren Erakusketa

ZUBIETA

HEZKUNTZA → 2011/2012 IKASTURTEA

Zazpi neska- mutiko hasi dira aurten lehenbiziko aldiz eskolan

Aspaldiko talderik haundiena da aurtengoa

Fermin ETXEKOLONEA

Ekaitz, Jonan, Kandela, Mattin, Urki, Aihen eta Lander. Zazpi neska-mutiko hauek joan den astean hasi ziren lehenbiziko aldiz eskolan eta aipatzekoa da kopurua, aspaldi ez baitzen aurten hiru urte bete edo beteko dituzten horrelako talderik izan herrian. Beste gazte-txoak ere irailaren 7an itzuli ziren eskolara, udako oporraldiaren ondok.

Euskararen Eguna prestatzen

Euskararen Egune-ko prestaketak egiten hasiak dira gazteak. Irailaren 2an egin zuten bilera eta eguna zehaztu dute: urriaren 8an izanen da. Ostiraletik hasiko dira ekitaldiak, baina egitarau zehatza hurrengo alean emanen dugu. Izanen da berriz ere zer ikusia.

Gazteguneez bilera

Ostiral honetan, irailak 16, gurasoek bilera eginen dute. Urriaren 1ean hastekoa da Gazteguneearen bigarren denboraldia eta horri buruz hitz egiteko bilduko



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Aurten hiru urte bete edo beteko dituzten haurrak: Ekaitz, Jonan, Kandela, Mattin, Urki, Aihen eta Lander.

dira ostiralean. Horrekin batera, Euskararen Egunean haurrek izanen duten tarte ere hizpide izanen da.

Juliana herrian

Azkenean gure artean dugu Juliana, 14 urteko errusiarra. Lehen oporrak pasatzera etortzen zen Joxemi eta Ixabelengana baina adopzioarako behar diren paperak egin ondok, gure artean egonen da. Zorionak bai gurasoei,

Joxemi eta Ixabeli, eta bai Zubietako atautxi eta amatxiri ere, Maximo eta Mertxeri.

Igor Babaze sasoian

Irailaren 3an, Larra-Larrau bizikleta proban parte hartu zuen Igor Babaze herritarrak. 100 kilometro, 2.600 metroko desnibela eta hiru portu dituen ibilbidea aukeratu zuen, baita akutu ere. Bistakoa da sasoian dagoela eta segi

dezala horrela!

Juainas Paul berriz ere aktore

Aktore gisa gogotik dabil Juainas Paul. Due-la ez asko *Baztan* filmean aritu zen eta uda honetan, berriz, Iban Ayes-ta zuzendariaren *Vera* izeneko pelikulan ibili da. Erronkari, Irati eta Echo inguruan grabatu zen uztailean eta *Vera* izeneko artzain gazte bati gertatzen zaionari buruzkoa da.

VIAJES IBERIAK BADU BULEGOA BERAN!
OPORRIK HOBERENAK NAHI DITUZU?
 Aprobetxatu iraileko eskaintza.

KANARIAK	KARIBE eta BRASIL
TENERIFE Billete (París) 290 €	PUNTA CANA Billete (París) 750 €
LANZAROTE Billete (París) 370 €	RIVIERA MAYA Billete (París) 680 €
	JAMAICA Billete (París) 950 €
	BRASIL Billete (París) 790 €

5% Dtu.

VIAJES IBERIA

EZKURRA

GIZARTEA → ARKUPEAK ELKARTEAREN ESKUTIK

18 herritarrek parte hartu dute Arantzazu eta Loiolara egindako irteeran

Herriko 8-9 lagunek ikasi zuten bere garaian Arantzazun

Fernando ETXEBERRIA

Joan den abuztuaren 31n Arkupeak elkarteak Arantzazura eta Loiolara joateko ateraldia antolatu zuten. Guztira 395 bazkidek parte hartu zuten irteeran, eta Ezkurratik 18 lagun joan ziren.

Bere garaian, jende asko joaten zen erromesaldian Arantzazura. Eta bi dira horren atzean dauden arrazoiak: alde batetik, frantziskotarrak ziren Ezkurrra etortzen zirenak herri misio ospetsu horietan eta lego batzuk ere pasatu ohi ziren basilika berria eraikitze-ko limosna eskatuz. Horrek arrastoa utzi zuen. Gainera, bokazio erlijiosoa sentitzen zuten gazte eta ez hain gazteak Arantzazura ikastera joatea oso ohi-

koa zen. Zortzi bederrazi lagun ibili ziren Arantzazuko ikasgeletan eta hiruk apaiz frantziskotar egiteko bidea aukeratu zuten.

Baina garaia aldatu egin dira. Gero eta sekularizazio haundia dago, gazteriek behera egin du nabarmen eta gaur egun hemen ez dago bokaziorik. Iraganeko oroitzapenak baino ez dira gelditzen eta jende helduak Arantzazuko amabirjinarekiko debozioa sentitzen du. Horregatik ez da harritzekoa Arantzazura egindako ateraldiak hainbeste lagunek parte hartzea. Aralarra eta Jabiererra jende gutxiago joaten da.

Aurtengo irteeran eguraldiak lagundu egin zuen. Bero haundirik ez zuen egin eta Loiola ondoan egindako bazkaria oso goxoa izan zela esan zuten askok.

Bazkalondoko dantzaldian herritarrek dantzan ageri diren ar-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Herritarrek gustura ibili ziren Arantzazun eta Loiolan.

gazkiak badira eta egia da ez direla gauza txar-

rik egiten ari, baina herriko festetan baino

animatuagoak ageri direla, hori egia da.

**BORTZIRI
UNSION ANIAK**
Sukalderako altzariak

Herrero enpres • LEBAKA
Tel.: 948 637 266 • 907 226 881 • Fax: 948 637 511

ttipi-ttapa
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

15996

Zure laguntasunarekin
DOKUMENTU-POLTSA
Berri izan! Berritu zurea!

Herriko 11. kalea
20110 Bidasoa (Nafarroa)
Tel.: 948 637 266 • Fax: 948 637 511

EDARI AK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948 63 10 27

KIROLA → BURUZ BURUKO ERREMONTE TXAPELKETA

Txapela nahi baino urrutiago gelditu da

Erremonteko buruz buruko finalean aritu da Miel Mari Urrutia

TTIPI-TTAPA

Banakako erremonteko finala zuten saldistarrek eta doneztebarrak hilaren 3an. Erreka berekoak izanda, erdibidea ere ez zen txarra partida jokatzeko, baina Galarretak xarma handia du, eta Hernanira joan ziren denak: alde batetik, saldistar eta eratsundar morderka bat, *Urrutia txapeldun* atorra soinean zutela, eta, beste aldetik, autobus bete doneztebar. Jende modakoa ere joan zen partida ikustera: han ziren Kaikuko arraunlariak, frontoiko idorrera etorriak, Korta oriotarrarekin. Ongi bete zegoen, behinik behin, frontoia.

Bi pilotariek ere ez zuten hutsik egin. Hor atera ziren galtza zuriekin, eskua xextoan eta



UTZITAKO ARGAZKIA: ELREMONTE.BLOGSPOT.COM

Sariak banatzean, Urrutia, Ezkurra eta honen semea.

kaskoa besapean, txalo artean. Haien aurpegietan nabari zen finalaketako tentsioa. Hirugarrena nahi zuen Urrutia I.ak, eta hamaikagarrena Koteto Ezkurra. Partida hasi baino lehen txueago, bi aitaren egin zituen Miel Marik, eta jendea animoka aritu zitzaion fuerte, baina esutu samar hasi zen; Ezkurra, ordeo, lasai arraio ibili zen, urte asko baitira maila horretako par-

tidak jokatzeko, bai eta aprobetxatu ere lehen dabilen tantoetan eskapo egiteko. Tanto motxak izandu ziren partida erdi arteraino edo, eta izerditzeko hasi arte, alde handitzen joan zen Doneztebeko mutila. Partida erditsuan, orain batek orain besteak, tantoak eginez joan ziren. Miel Marik errebotean ikusten zuen zuloa, eta Kotetok seigarren koadroko itza-

lean. Gero, hiru tanto-ora hurbildu zen Miel Mari bizpahiru aldiz; bate-tik bestera ibili zuen Ezkurra tanto horietan: nola atzeko koadroetara lasterka, nola aurreko koadroetan iraulka. Zenbait tantotan, hirulau metroko izerdi Ezkurra utzi zituen Ezkurra lurrean, baina tantoak bere aldera ekartzen hasi zen bueltan. Sakean, Miel Marik behar zuen nagusi,

baina horretan ere Ezkurra asmatu, eta saldistarra, juxtuxeago. Hala ere, gure mutila ez zegoen boneta erregalotan emateko, eta eginahalak eta bi egin zituen, baita jendea berotu ere, animo gehiago emateko; hogeita bederatzigarren tantotan, gainera, sake-erresto batean, belauna txikitu ez bazuen; mainguka akitu zuen partida. Atzeneko, behinik behin, Ezkurra ailegatu zen lehenago 30era, eta, hamaikagarren aldikoz, hura txapeldun. Partida akituta, Tomas Rekondo lagunari eskaini zion txapela.

Kontuak kontu, ez du nolana hiko txapelketa egin Miel Marik, eta Ezkurra kontra galtzea ez da edozeinen kontra galtzea, erre-montek eman duen pilotaririk hobere-na izanen da eta. Gainera, final batera ailegatzea, hutsa, handia da, eta ospatzeko modukoa. Biek ospatu izanen zuten, dudarik gabe.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

artekari@artekari.com

LEZAKA: Siltiri, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

MARTIKO

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

DENDA
ORDUTEGIA
ASTEZOHARTIA
ORDUTEGIA

08:00etatik
17:00etara

Martiko
Pta. Zamen, 3/1.
31700 Dena, Nafarroa
Tel: 948 620028 Fax: 948 620036
www.martiko.com

BERTIZARANA

GIZARTEA → BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Azken hamarkada hauetan ez da aldaketa haundirik izan biztanle kopuruan

1920. urtean 936 biztanle zituen Bertizaranak

TTIPI-TTAPA

Hiru herriz osatutako bailarak, Narbarte, Legasa eta Oiiregi, bere izena Bertizaranako jaurrenitik hartzen du. Gaur egun hiru kontzejuz osaturik dago eta bailarako alkatea Antonio Erregerena (Bildukoa) da.

Bere lur eremua 40 kilometro koadrokoa da eta itsasotik 136 me-


trotara dago. Bertizaranako biztanle kopurua, berriz, 647koa da. Azken hiru hamarkadatan biztanleria mantentzen ari dela erran daiteke, baina hala ere, joera hori beheitiranzkoa da.

INE Estatistika Institutu Nazionalaren zentsoko datuei erreparatuz gero, 1920 izan zen biztanle kopururik altuena, 936 bizilagunekin eta exkaxena 1981ean, 607 biztanlerekin. Ondoko taulan 1900az geroztik biztanleriak izan duen bilakaera ikus daiteke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Goiko argazkian Bertizaranako bazterrak ikus daitezke. Behekoan 1900tik 2010era biztanleriak izan duen bilakaera, beti ere, INEren arabera.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEHUNDEHRI | BERAITSAN (OSE) | LESANA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETTZA | BÉTELU
DORRETEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

AZPIEGITURA → BI HILABETEREN ONDOTIK

Ortzegun honetan irekiko da berriz Belateko Tunela



Mariezkurrena Eraikuntzak eta SICE SA enpresek egin dituzte lanak

09:00etan zabalduko dira

TTIPI TTAPA

Uztailaren 8an sendagai-hautsen zakuak zeramatzan kamioi batek Iruñea aldera zihoala su hartu zuen, eta Belate tunelaren azpiegituran kalte larriak eragin zituen. Geroztik, itxita egon dira Belateko eta Almandozko tunelak. Baina, duela bi aste jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak ortzegun honetan, irailak 15, 09:00etan berriz irekia egonen dela.

Bitarte honetan, istripuak eragindako kalteak konpontzeaz gain, Gobernuak adierazi duenez, «prebentzio-izaerako jarduerak egin dira bi tuneletan, era horretan, epe laburrean trafikoari gehiago eragin ez diezaion».

Azpiegitura konpontzeko lanak Mariezkurrena Eraikuntzak (egitura berriz eraiki du) eta SICE SA enpresek egin dituzte. Azken horrek, alde batetik, suteak kaltetutako materiala desmuntatu eta kendu du eta bertetik, kaltetutako segurtasun-sistema guztiak konpondu ditu.

Comercio a punto

MERKATARITZAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

%100-EKO DIRU-LAGUNTZA DUTEN IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABEENTZAT, ARABERA

	Ikastaroak	Orduak	Datak	Ordu-tegiak
ALTSASU	Erakuslehoak atontzeko teknika aurreratuak saltoki bikiarentzat Konektatu zaituz zure bezeroekin gizarfe-sareen bidez	20	17/10/2011-28/10/2011	15:00 - 17:00
ELIZONDO	Visual merchandising. Saltzen duten dendak	20	01/02/2012-14/02/2012	14:30 - 16:30
LESACA	Iragarkiak Google-en eta diseinatu ezazu zeroren web-ornia	20	10/10/2011-24/10/2011	14:30 - 16:30
DONEZTEBE	Erakuslehoak atontzeko teknika aurreratuak saltoki bikiarentzat	20	03/10/2011-17/10/2011	14:30 - 16:30

Online izen-ematea: www.comercionavarra.com | **Informazioa:** formacion@comercionavarra.com // 948 239988

Finantzaileak

Ardatzaileak

Kalitate-erakundeak

%100-EKO DIRU-LAGUNTZA DUTEN IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABEENTZAT, ARABERA

	Ikastaroak	Orduak	Datak	Ordu-tegiak
ALTSASU	Merkatarien eskubide eta eginbeharrak	10	23/01/2012-27/01/2012	15:00 - 17:00
GERA	Sormena eta berrikuntza bultzatzeko tresnak saltokian	20	19/09/2011-30/09/2011	14:30 - 16:30
	Nola negoziatu banku eta borsitzaileekin saltokianen finantzatzeaz hobetzeko	20	06/02/2012-17/02/2012	14:30 - 16:30
	Merkatarien eskubide eta eginbeharrak	10	12/03/2012-16/03/2012	14:30 - 16:30
ELIZONDO	Blog bat mire saltokirako	20	08/11/2011-21/11/2011	14:30 - 16:30
LESACA	Sormena eta berrikuntza bultzatzeko tresnak saltokian	20	12/03/2012-23/03/2012	14:30 - 16:30
DONEZTEBE	Diseinatu zeroren iragarkiak	30	20/02/2012-03/03/2012	14:30 - 16:30

Online izen-ematea: www.comercionavarra.com | **Informazioa:** formacion@comercionavarra.com // 948 239988

Finantzaileak

Ardatzaileak

Kalitate-erakundeak

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → KIZKI EGUNA EGINEN DA

Kizkiarekin sagarrak biltzeko erronkari eginen dio aurre urriaren 1ean herriak

355 lagun baino gehiago elkartu nahi dira kizkiarekin sagarrak biltzeko

TTIPI-TTAPA

Sagarrak eta kizkia tartean direla, Kizki Eguna eginen da urriaren 1ean Goizuetan. Sagarraren eta sagardoaren kultura bultzatzeko helburuarekin antolatuta da eta egun berezia izanen da, jende asko elkartuko duena. Izan ere, sagarrak eta sagardoak euskal gizartearekin lotura handia izan dute betidanik eta hori ezagutarazteko hasi ziren orain dela bi urte Astigarragan Kizki Eguna antolatzen. Horren barne, marka ere ezarri zuten, kizkiarekin sagarrak biltzen 311 lagun elkartuz. Joan den urtean, Oiartzunek hobetu zuten marka, 355 lagunekin, eta aurten Goizuetan saiatuko da gainditzeko, jaso den desafioari baietz erantzun baitio.

Eguerdian hasiko da jendea biltzen. Bakoi-tzak bere kizkia izanen du eskuan, sagarrak lurrean egonen dira eta epaileak agindua emandakoan, kizkiekin sagarra bildu eta saskira. Marka hobetzeko 355 lagun baino gehiago behar dira.

2015era bitarte hainbat herritan eguna ospatzea da asmoa, eta urte horretan, Astigarra-rgan berriz Kizki Eguna antolatuta nahi da eta

MARKA HOBETZEKO ASMOA

«Goizuetan burugogorrrak gara eta desafioari baietz esan diogu. Bertako jendearekin bakarrik ez, baina kanpotik etorriko denarekin marka hobetuko dugu»

Fernando GOIA

1.000-1.500 lagun sagarrak biltzeko elkartu.

Marka hori izanen da urriaren 1eko ekitaldi nagusia, baina ez bakarra. Eguerdian herri bazkaria eginen da eta arratsaldean desafioa, festa hau egin den herrien artean: Goizuetan, Astigarragan eta Oiartzun nor baino nor ariko dira. Hasteko, talde bakoi-tzak lau zaku sagarrez bete beharko ditu, 40 kilo sagar; gero leran jarri eta plazak egin beharko dituzte; segidan matxakara bota eta txikitu eta handik ateratzen den patxa tolarera bota.

Ilunabarretik aurrera ere ez da festarako aitzakiarik faltako.

Aipatzekoa da, orain arte festa honen antolatetaren ardura elkarre edo erakunde batek hartu izan duela, baina Goizuetaren kasuan herriko eragile guztiak ari dira lanean.

KIZKIAK SALGAI

Kizkiak herriko talde batek eginen ditu eta eguna baino lehen salgai jarriko dira. Horrekin batera, izena ere eman beharko da, antolatzaileek jakin deza-

ten gutxi gorabehera zenbat lagun etorriko den. Edozein kasutan, 355 laguneko muga gainditzeko zalantza

haundirik ez dago herrian, «Goizuetan burugogorrrak gara eta desafioari baietz esan diogu. Bertako jendeare-

kin bakarrik ez, baina kanpotik etorriko denarekin hobetuko dugu marka». Halaxe adierazi digu Fernando Goiak.

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO FESTA ISKIBIN

Igande honetan ospatuko da Iskibi kanpineko Euskal Jaia

Herri kirolak, taloak eta musikak osatuko dute egitaraua

TTIPI-TTAPA

Urteko festen artean, gero eta indar haundiagoa hartzen ari den Iskibiko Euskal Jaia igande honetan, irailak 18, izanen da. Urtero bezala, hainbat ekitaldi izanen dira eta guztiak kanpinean.

Eguerdian hasiko da festa. 12:00etatik aurrera dultzaineroek alaituko dituzte kanpineko bazterak. Ondoren, 13:00etan, herri-

kirolak izanen dira eta ordubete beranduago, 14:00etan, talo jatea eginen da herriko talogileen eskutik; taloa hirugiharra, txistorra, gazta eta txokolatearekin eskainiko da. Sagardoa, ardoa, kafea edo koparik ere ez da faltako.

Arratsaldean, 17:00etan toka txapelketa jokatu da eta 18:00etan Bonatxok giroa alaituko du, bere soinu eta abestiekin.

TXARTELAK

Euskal Jai honetan parte hartu nahi duenak Amaia kafetegian edo Iskibin berean eskuratu ahalko ditu, 16 eurotan.



TESTUA: ESTEBAN AROZENA / ARGAZKIA: ANE APEZETXEA

Artikutza udal ordezkarien bilgune

Artikutzarekin zerikusi zuzena duten bi Udaletako goi karguak elkartzeko aukera paregabera sortu zen abuztuaren 28ko Sanaustineko erromerian. Erdian, bertako alkatea, Pablo Miranda. Eta eskuinean, Juan Karlos Izagirre, auzoaren jabea den Donostiako Udaleko agintari nagusia. Mieljoxe Lekuonak bete zuen bitartekari lana.

OSPAKIZUNAK → SANTIOAK IRAILAREN 17AN OSPATUKO DIRA

Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Unai Agirre larunbateko festan

Bertso emanaldia 12:30ean izanen da eta arratsaldean herri kirol saio ederra jokatu da

Kontxi eta Ainhoa

Udan santioak ospatzeko modu handirik ez zen izan aurtengoan, eguraldi txarrak erabat zapuztu baitzituen aurreikusitako ekitaldiak. Baina ez dira horregatik ospatu gabe geldituko santioak eta larunbat honetan, irailak 17, egingo dira orduan egin gabe gelditu ziren ekitaldiak.

11:00etan hasita bi pilota partida jokatu dira. Alde batetik, gaztetxoan artean, Mujika eta Apezetxea, Altsua eta Apezetxearen kontra ariko dira. Bigarrenean, ohiko Goizueta eta Aranoren arteko partida egingen da. Aranotik Huizi eta Lizeagak

PILOTA PARTIDA

Goizueta-Arana arteko partidari, Aranotik Huizik eta Lizeagak jokatu dute eta Goizuetatik Apezetxeak eta Narbartek.

jokatu dute eta Goizuetatik Apezetxeak eta Narbartek.

12:30ean bertsolariaren txanda izanen da: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Unai Agirre ariko dira bertsoan.

15:30ean haurrentzako puzgarriak izango dira eta 17:30ean herri kirolen txanda izanen da. Iparraldeko jokoa egingo dira. Aizkolariak ere ariko dira, Atutxa eta Nazabal, hain zuzen. Horrez gain, bost metroko egurrarekin Felix Etxeberria ariko da lanean. Harriarekin, berriz, Joxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.a* ariko da.

Iluntze aldera trikitixa izango da festari amaiera emanez.



ARGAZKIAK: KONTXI KLABER

Bixargorri landetxea

Jabier Plazakoa da bere jabea, etxea hutsik eta etekinik eman gabe daukala jabetuta nolabaiteko etekina ateratzeko asmoarekin jokatu du, Bixargorri herriak duen lehen landetxea bihurtuz. Etxe osoa alokatzeko aukera eskaintzen du, lau lagun edo gehienez seirentzat prestatua dago. Bi gelek, sukaldea, komuna, egongela (lurreko suarekin) eta terraza eder bat eguraldia lagun izanez gero, inguruak eskaintzen duen lasaitasun ederraz gozatzeko. Aziendak ere onartzen ditu, etxeak sotoa dauka horretarako. Aranon nahiz eta ez den turismoa landu, oso herri ezaguna da Hernani eta Donostiaren gertutasunagatik, 30 minututan itsasoa daukalako eta mendia beriz atarian. Jende asko ibiltzen da inguruan, gero bertako taberna edo elkartean bazkalduz. Orain lotarako aukera berria eskainiko du Bixargorri. Mendiak oinez nahiz bizikletaz ibiltzeko, erreka eta itsasoaren gertutasuna, jendea animatzeko hiru osagarri oso baliagarriak ikusten ditu Jabierrek.

gaztelu sol
iturgintza
kalifikazio - santsamendua - gasa
Telefono: 948 510 096 - 948 510 196
Fax: 948 510 856
LEITZA

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sünbilla - Tel: 948 450 862

ttipi-ttapa
Papereko edukiak
- Inerentzia
- Egunkeri berriak
- Agenda
- Merkatu txiki
- Eguraldi
- Oriberrak...
www.ttipi.net

MAIMUR
ttipi-ttapa
%10eko
DESKONTUA
opiaritzeko artikuluarentzat

LEITZA

UDALA → AUZITEGI NAZIONALAK INPUNTATU DITU

Alkateari eta inputatutako beste bi herritarrei babesa agertu diete herritarrek

Egindako kanpaina salatu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Pestetako egitarauan euskal presoaren eskubideen aldeko manifestazioa iragartzeagatik Espainiako Auzitegi Nazionalak Oier Eizmendi alkatea inputatu du eta berekin batera, Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena ere bai, txupinazoan Jone Lozano presoaren argazkidun kamiseta janzteagatik «terrorismoa goratzea» leporatuta.

Joan den ostegunean, irailak 8, deklaratzeko

koak ziren hiru inpuntatuak Madrilen, baina bitartean herritarren babesa etengabea izan da:

Udalak herriaren eta hiru auzipetuen aurka eragindako kanpaina mediatiko-politikoasalatu zuen irailaren 6an egindako ez-ohiko batzarrean. Auzipetuei elkartzuna adierazteaz gain, erabateko babesa ematea erabaki zuen eta ondorioz, bere gain hartuko ditu bai babes juridiko-teknikoa, bai kostu ekonomikoa nahiz bestelako gastuak.

Horrez gain, hainbat arlotako eragile ugari bildu ziren plazan, auzipetuei babesa ematera eta «pesta bezperan egin zi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat herritar bildu zen hilaren 6an inputatuei babesa adierazteko egindako prentsaurrekoan.

ren presoaren aldeko elkartzunaren agerraldiak kriminalizatuz batera, herriaren irudia osotara manipulatu ematen ari direlako». Eragileen arabera, «hemen egon ez eta, egun horretan plazan eta udaletxean gertatu zenaren bertsio osotara nahastu, gezurrezko eta interesatuak hedatu dituzte; hemen sekulako guda batean bizi bagina bezala; elkarbizitza ezinezkoa izanen balitz bezala».

Eragile hauen esanetan, «inoiz izan badira, aurtengo pestak izan dira lasaiak, inolako liskarrik gabekoak eta jendea patxadaz ibili dena». Eragileek bere babes osoa

eta laguntza eskaini nahi izan zieten «asmaturako auzi honetan gertatzen ari zaien injustizia honen aurrean».

Hilaren 8an, beriz, deklaratzeko egunean, bi orduko lanuztea eta elkarretaratzeak egin ziren.

Inpuntatuei babesa agertu dietenen artean daude: Aurrera Elkartea, IKA, Kornietako Elkartea, AAM, ALKE, Marmari, Mendigorria elkartea, Saharar Herriaren aldeko elkartzun taldea, Torrea elkartea, Jeiki abesbatza, Liñooputzu ehazkari elkartea, Gazte Asanblada, Gazte independentistak, Muttur bero elkartea, Karrape Irratia, Ate-kabeltz elkartea, Bilgu-

ne Feminista, EHNE, Erraldioien konpartsa, txalapartariak, LAB, dantzariak, pilota eskola, kirol-joko taldea, Mendibil mendi-taldea, Aurrera futbol-taldea, Perraaldi-taldea eta norbanako ezagunok: Iñaki Perurena, Oinatz Bengoetxea, Jose Luis Huarte, Jon Kanflanka, Ibai Bengoetxea, Iñaki Agirre, Abel Barriola, Maite Perurena, Aimar Sagastibeltza, Patziku Perurena, Ruben Astibia, Iera Agirre, Asier Olaizola, Mikel Ilarregi, Joxton Olaetxea, Aitor Zabaleta, Iker Alduntzin, Josu Erbiti, Zuriñe Odriozola, Maria Jesus Ariztimuño, Junkal Otxotorena eta Teresa Martinez.

EUSKARA → EUSKARA ZERBITZUAREN EKIMENA

Kale eta auzoen izen ofizialak onartu ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

«Leitzako kaleen eta auzoen izenen erabilera nahikoa nahasia, eta hainbat kasutan okerra dela» iritzita, auzi hori ordenatzeko eta ofizializatzeko asmoz, Euskara Zerbitzuak proposamena egin zion Euskara Batzordeari, eta hor aztertu ondotik, proposamen hori Udalari egin eta honek onartu egin du.

Euskara Zerbitzuak dionari jarraiki, hauek dira auzo eta kaleen izen egokiak: *Arkiskil auzoa, Erasote auzoa, Erreka auzoa, Gorritzaran auzoa, Sakulu auzoa, Amazabal kalea, Azku kalea, Elbarren kalea, Elgoien kalea, Lizarraga kalea, Manuel Lasarte kalea, Okillin kalea, Patxi Arrazola kalea, San Jose kalea, Done Mikel kalea, Leitzalarreko errepi-*

dea, Landa behekoa kalea eta Uharteko Gotzaina kalea.

BOST IZEN EZTABADATUAK

Zalantzak sortu eta eztabaida eragin dezaketenak azken bost izenak izan daitezkeelakoan, azalpenak ere eman ditu Euskara Zerbitzuak:

San Jose eta *Done Mikelen* inguruan, Euskaltzaindiaren 125. arauan oinarritu dira izena zehazteko. «Arau horretan esaten denez, euskara baturako San/ Santa erabiltzen da normalean, baina badira bestelako tradizioa duten izenak, Dona eta Done erabiltzen dutenak. Jose izenaren kasuan ez dago gisako tradiziorik, eta beraz, San Jose behar luke. Done Mikel izenak, berriz, ba-

du tradizio hori, eta egokia da hori erabiltzea», adierazi dute Euskara Zerbitzuetik.

Leitzalarreko errepidearen kasuan, *Leitzalarrea* eta *Leitzelarrea* biak ere erabiliak dira, baina idatzirakoan *Leitza* erabiltzen delako, *Leitzalarrearen* alde egin da.

Herriko toponimia biltzen duen *Leitza*. *Toponimia eta mapagintza* liburuan, *Landa behekoa* forma ageri da, eta jasotako tradizio zaharrena hori denez, horren hautua egin da.

Uharteko Gotzainaren kasuan, *Huarte* abizenaren euskarazko forma normalizatu erabiliko da, eta horrekin batera, *gotzain*, Euskaltzaindiaren hiztegian hartzen duen forma hori delako.

MENDIA → 23 KILOMETROKO ITZULIA

420 mendizalek parte hartu dute mendi martxaren laugarren edizioan

Euriaren beldur egon arren, jendea ez zen etxean gelditu

Juana Mari SAIZAR

Joan den irailaren 4an egin zen Mendi Martxaren laugarren edizioa, eta goizeangoiz etorri zen jendea, 08:00etan puntuan martxari ekiteko.

Aurten ere plaza bete egin zen, guztira 420 partehartzailek eman zuten izena eta nahiz eta eguraldiaren beldurra zegoen jendea ez zen kikildu. Gainera, azkenean, eguraldia lagun izan zen eta goizean ederki eutsi zion eu-

ririk egin gabe. Amaieran opariak izan ziren eta 12:30ean paella banatu zen plazan parte-hartzaile guztientzat, baita sagardoa, ogia, eta indarrak hartzeko nahiko postre ere: yogurtak, fruitu lehorrak, txokolatea... Oso giro ederra sortu zen eta jendea oso pozik joan zen. Datorren urtean gehiago eta hobeto.

Antonio Alustiza jaun eta jabe

Antonio Alustiza berriro garaile izan zen Uharte Arakilen jokatu-tako Nafarroako Artzain Zakur Lehiaketan. Aurtengoa 44. edizioa izan zen eta aresoarrak ha-



Mendizaleak martxa ateri aurretik plazan.

ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

mabigarren aldiz jantzi du txapela. Bi zakur eramantzen zituen, *Tiki* eta *Bat*. *Ttikirekin* seigarren aldiz irabazi du eta horrez

gain, aurten bigarren postua ere Antonioren-tzat izan da *Bat* zakurrarekin. Beraz, zorionak eta ea zorte bera

duen igande honetan, irailak 18, Atxondon (Bizkaia) jokatu den Euskal Herriko Artzain Zakur Lehiaketan.

1951 **60** aniversario 2011
Casa Cambra

Udazken-negua

Tafalla, 13 • IRUÑA 948 230 634

edredoi fundak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornozak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

BAZTAN

ABELTZAINZA → AURTEN BERTZE URTE BATEZ

Pirinioetako behien lehiaketa-enkantea eginen da irailaren 24an eta 25ean

Ehunka abelburu ikusgai izanen dira Elizondon

TTIPI-TTAPA

Hutsik egin gabe, aurten ere piriniar arrazako behien estatu mailako lehiaketa-enkantea eginen da Elizondon, irailaren 24an eta 25ean. Ehunka abelburu ikus-teko aukera izanen da urteetan egiten den ekimen hau tarteko.

IRAILAK 23, ORTZIRALA

• 15:00etatik aitzinera abelburuak Merkatuko Plazan sartzeko aukera izanen da.

IRAILAK 24, LARUNBATA

• 09:00etarako parte hartuko duten abelburuak Merkatuko Plazan sartuko dira.

• 18:00etan behi-azien-daren erakustaldia. Esatari batek aziendak deskribatuko ditu.

• 20:30ean Luis Irizarrek eskainitako hitzaldia Elizondoko Herriko Etxean.

• 22:00etan antolatzaileek parte-hartzaileei afaria eskainiko diete.

Larunbatean epaimahaikideek lehiaketan parte hartuko duten abelburuak baloratu eta puntuatuko dituzte.

IRAILAK 25, IGANDEA

• 10:30etik 14:00etara Baztango artisautza azoka.

• 11:00etan Nafarroako aratxearen haragi eta *Baztangoa* gaztaren dastaketa.

- 12:00etan pintxo lehiaketaren ipuin eta marrazki lehiaketaren sari banaketak.
- 12:30ean behi-azien-daren enkantea.
- 13:00etan sari eta garaikur banaketa.
- Ondotik, ASPINA elkarteak Baztango aratxe piriniar bat zozketatuko du.

Udal kontuhartzailerako lanpostua deialdia

Bitarteko kontratua-rekin lanean segitzen duten Nafarroako udal-tako 12 idazkarik eta 31 kontuhartzailek lanpostua jabetzan lortu ahal izanen dute, horretarako lan eskaintza publiko baterako deialdia egin baitu. Kontuhartzaileen lanpostuen tartean dago Baztango Udalekoa ere.

Probak 2012ko bigarren seilhilekoa baino lehen egitea eragozten du legeak, baina deialdia guttienez sei hilabete lehenago egitea eskatzen du. Hala, langile publiko-koen bitarteko izaerako egoera hori 2013ko hasierarako bukatua egotea aurreikusia da.

Pirritx eta Porrotx igandean Lurren

Azken urteotan bezala, Baztan Ikastolako Guraso Elkartearen eskutik, Pirritx eta Porrotx Euskal Herriko pailazo ezagunak etorriko dira igande honetan, irailak 18, Elizondoko Lur dan-tzalekura. Azken honek lagunduta etorriko dira. 18:00etan hasiko da



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztan-Errekako taldeak Europako pilota luzeko txapelketako bi partidak irabazi ditu

Aurten lehendabiziko aldiz, zuzeneko esku pilota txapelketa jokatzen ari dira Europako klubuen artean. Europako hamahiru talde ari dira lehiatzen, multzotan banatuta. Eta lehia horretako kanporaketa faseari Elizondon eman zitzaion hasiera irailaren 3an. Udalak harrera ofiziala egin zien klub eta pilotariei eta partidak arratsaldean hasi ziren. Guztira hiru partida jokatu ziren aurten 150 urte bete dituen Elizondoko plazan. Baztan-Errekako boskoteak nagusitasunez irabazi zituen bere bi partidak, 6-0 Angeluko Hardoi taldeari eta 6-2 Alakanteko El Campellokoei. Arratsean, pilotari guztiek elkarrekin afaldu zuten, Udalak eta Elizondoko herriak eskainitako afarian. Irailaren 10ean, itzulerako partidak jokatzeak ziren eta azken fasea irailaren 23tik 25era jokatuko dute Iruñeko Antoniutti parkean.

saioa eta txartelak sei eurotan eros daitezke ondoko toki hauetan:

Elizondon (Intza, Trinke-tea eta Fantxike), Lesakan (Atxaspi), Beran

(Errekalde), Urdazubin (Karretero) eta Zugarramurdi (Ansalas).

Okindegia
Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)

Espezialitateak parrillan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea

Tfnoa: (948) 453 403

31713 ARIZKUN

ANIZKO ARROSARIOKO AMABIRJINAREN BESTAK → URRIAREN 1ETIK 3RA

Ortziral eguerdiko ezkil jotzearekin hasiko dira amabirjin bestak

Aurten hiru egunez izanen dira bestetako ekitaldiak

Bixente, Jaione eta Joxeanjel akordeoilariak alaituko dituzte hiru egunak

IGANDEA 2 Arrosarioko Amabirjinaren eguna

11:30etan Iratxe eta Jo-
ne txixtulariekin kaleji-
ra. **12:00etan** Meza Na-
gusia. **13:00etan** otor-
dua. **18:00etan** herri ki-
rolak. **Ondotik** JAIONE
akordeoilariarekin dan-
tzaldia. **Akabailan** afa-
ria.

ASTELEHENA 2 Adiskidetasun eguna

11:00etan Mus Txapel-
keta. **14:00etan** zikiro
jatea, JOXEANJELek
alaituta. **17:00etan** gin-
kana. **21:00etan** xingar
jatea. **Akitzeko** GIZA-
JOA NI.

LARUNBATA 1 Bezpera

12:00etan ezkil jotzea
eta altxaferoak. **12:30-
ean** haur jokoak. **14:00etan**
haurrenda-
ko bazkaria. **16:00etan**
puzgarriak. **18:00etan**
txokolate
jatea. **20:30etan** Mutildantzak
20:45ean Baztanzopak.
Ondotik dantzaldia BI-
XENTE akordeoilariare-
kin. **Akitzeko** xingar ja-
tea.

OHARRA
Larunbatean gan-torri
autobusa ibiliko da
herriz herri.



ARGAZKIAK: MAITANE MARITORENA

Umorerik ez da falta izaten Anizko bestetan. Argazkiei begiratu bertzerik ez dago hori ikusteko.

ttipi-ttapa
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

15996

Dura laguntasun aplikazioa
DKUMENTU-POLITSA
Bilatu laguntza zurea

0948 453 444
0629 659 583
ARIZKUN

SOULE
hileta artea
Tfnoa: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
0948 453 444
0629 659 583
ARIZKUN - MUGAURI

Gure Haragia
Nuestra Carne

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 23AN ETA 24AN

Aldi berean izanen dira errebestak Amaiurren, Arizkunen eta Erratzun

Arizkunen puntako kontzertuak izanen dira larunbat gauean

TTIPI-TTAPA

Bestak alde batera utzi gabe, ospakizunekin segitu nahi dute Amaiurren, Arizkunen eta Erratzun. Hiru herriek egun berak aurreratu dituzte eta asteburu honetan zortzi errebestak izanen dira, irailaren 23an eta 24an.

AMAIURREN ORTZIRAL ETA LARUNBATEAN

Bi egunez ospatuko dituzte errebestak Amaiurren. Ortziralean, irailak 23, 19:30ean pala txapelketako finala jokatu da eta 21:00etan herri afaria egingen da elkartean.

Larunbatean, berriz, 14:00etan zikiro jatea egingen da herriko plazan FIDELek alaituta. Ondotik, dantzaldia izanen da eta 00:00etatik aitzinera gaupasa GAUBELA taldearekin.

ARIZKUNEN GAUPASA

11:00etan hasiko diren dianek emanen diote herriko gazteek antolatatu duten bestari hasiera. 11:30ean herri lasterketa egingen da eta 14:00etan herri bazkaria. Txartelak Dolaetxean eta Intzan daude salgai, 20 eurotan. Prezio horren barne dago gaueko kontzertuetarako sarrera ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ez dira berriz arbola goratzen hasiko Arizkunen errebestetan, baina Amaiurren eta Erratzun bezala, ez da girorik faltako.

Arratsaldean triki-bertso poteoa egingen da eta 20:30ean *Kattalin bere bidearen bile* ikuskizun herrikoia txanda izanen da.

23:00etan kontzertuak izanen dira: Aizkor Erauntsia, Zea Mays eta Gozategiren eskutik. Ondotik DJa ere izanen da. Kontzertuetarako sarrerak Zubi Puntan, Intzan, Txokoton eta Dolaetxean eros daitetzke, 10 eurotan. Prezio horrekin trago bat ere eskuratzen ahalko da dohainik. Aipatu, 22:00etatik aitzinera bokatak ere eskainiko dira eta kanpina paratzeko aukera ere izanen dela dohainik.

ERRATZUN ZIKIRO JATEA ETA DANTZALDIA

Erratzun ere ez dute errebestak ospatu gabe gelditu nahi izan eta irailaren 24a, larunbata, besta eguna izanen dute. Hutsik egingen ez duten ekitaldiak zikiro-ja-

KONTZERTUAK ARIZKUNEN

Euskal Herri mailan oihartzun handia duten taldeek joko dute irailaren 24an Arizkunen: Aizkor Erauntsia, Zea Mays eta Gozategi.

tea eta dantzaldia izanen dira.

BKTko jokalaria

Sei urtez segidan Ohorezko B mailan jokatzeko aukera izan du BKTko eskubaloi talde nagusiak, baina joan den denboraldian maila galdu zuen eta orain Nafarroa mailan jokatuko du. Horrez gain, 2010/2011 denboraldian BKTko jokalaria ziren Elisa Arretxea eta Talita Logroñoeko Sporting La Rioja taldera joan dira jokatzerara eta Irati Berruezo eta Kristina Irisarri Atarrabiako Bete Onak taldera.

FLASH

Zilbetiko tunela

Bere garaian Erdizen harrobia zabaldu nahi izan zuen Magnesitas Navarra enpresak harrobia egin nahi du Zilbetin. 1.600 metroko tunel bat ere egin nahidu eta tunel horrek Kintoko Mankomunitatean edukiko luke sarrera bat. Baztanek ere Kinton bere partea baduenetz, zer errana ematen ari da gaia. Garbiñe Elizegi alkateak kontatu digenez, «aurreko Udalak, ekainaren 6an, Kintoko Mankomunitateko bilera batean lurren desafektazioa onartzeko botoa eman zuen tunela egiteko». Elizegik dio oraingo Udalak gaia Batzar Nagusietan eztabaidatu nahi izan duela eta aldi berean, alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskatu diotela Kintoko Mankomunitateari. Hilaren 15a izanen da azken eguna. «Batzarkideak Erro eta Zilbetiko arduradunekin bildu gara. Aldekoak eta kontrakoak ikusita, alegazioak aurkeztea erabaki da. Batzar Nagusitik horretarako batzordea osatu dugu eta irailaren 15a baino lehen alegazioak aurkeztuko dira».

Hautetsien ordainsariak

Udalak erabakita-koaren arabera, alkateak dedikazio partziala izanen du, %80koa, eta horregatik urteko 23.548 euro jasoko ditu. Lehendabiziko alkateordeak, aldiz, dedikazio osoa eskainiko du eta 27.118 euro jasoko du. Batzordeetara joateagatik 100 euro hartuko ditu bakoitzak eta gehienez hilean 600 euro.



UDALA → ABUZTUAREN 25EKO OSOKO BILKURAN

Aroztegiako proiektuaren inguruan txostena eskatu du Udalak

Txosten horren arabera, erabaki bat edo bertze hartuko luke Udalak

TTIPI-TTAPA

Aroztegiako proiektuaren egoera legala zein den ikusteko txosten tekniko bat egiteko eskatuko du Udalak. Abuztuaren 25ean egingako osoko bilkuran, bertzeak bertze, Aroztegiako proiektua izan zuten Udalak eztabaiagai eta txostena egiteko erabakia hartu zuen. Txosten horren arabera, gauza bat edo bertze eginen luke Udalak: «proiektua geldiarazteak baztandar guztiengan ondorioak izanen dituela ikusten bada, orduan planteatu egingen da, baina bitartean proiektuaren kontra gauden», azaldu digu Garbiñe Elizegi alkateak.

Pleno horretan, Pello Iriarte NaBai 2011ko zinegotziak proiektuaren inguruan herri galdeketa egitea proposatu zuen. Horren harira, alkateak gogorarazi du «beregarai Lekarozen egin zela herri galdeketa eta kontra atera zirela herriarrak». Eta gaineratu du, «gu ez gaudela herri galdeketa kontra». Gai honi buruz, Noticiasen agertutakoari «manipulazioa» leporatu dio.

Oharrizko harrobia geldiaraztea erabaki du Batzar Nagusiak

Batzar Nagusiak Oharrizko harrobiko la-



Udalaren bilkura.

nak geldiaraztea erabaki du. Iurrita-Elizondo sailhesbideko lanak tarteko hasi ziren Oharrizko lanak, baina gauzak ez dira ongi egin dio Udalak. Alkatearen hitzetan, «aitzineko Udalak alkatearen ebazpen bidez eman zuen lur horiek era-

biltzeko baimena. Ustiatzen hasi eta nahikoa ez zela eta haunditzea eskatu zuten enpresak. Horretarako Batzar Nagusiak ez du baimenik eman, baina halere, lanean segitu dute Nafarroako Gobernuaren baimenarekin. Baina horko

lurrak komunalak dira eta horien gaineko eskumena Batzar Nagusiak du, ez Udalak eta ez Gobernuak». Gai horri eta «sailhesbideari ikusten dizkiogun hutsuneak» buruz solasteko «behin eta berri» Herrilan kontseilariarekin bilera egitea es-



PERTSONAIA

Julen URBIOLA LOIARTE

Idazkari berria izendatu du Udalak

Joan den abuztuaz geroztik, idazkari berria ari da udaletxean lanean: Julen Urbiola Loiarte da, 42 urtekoa. Iruñekoa da sortzez, eta Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbide ikasketak eginak ditu. Orain arte Etxarri Arantzeko udaletxean aritu da lanean.

katu dutela adierazi digu alkateak, «baina ez digu kasurik egin eta horregatik erabaki du Batzar Nagusiak harrobia geldiaraztea».

Batzordeetako eta erakundeetako ordezkariak izendatu ditu Udalak

Udalak batzorde informatzaileetako arduradunak izendatu ditu:

- **Kontuak eta ogasuna:** Garbiñe Elizegi lehendakaria eta delegatua Santiago Esarte. Kideak: Leopoldo Jaen, Iñigo Iturralde eta Pello Iriarte.
- **Etxebizitza, hirigintza, industria, turismo eta merkataritza:** Garbiñe Elizegi lehendakaria eta zinegotzi delegatua Santiago Esarte. Kideak: Begoña Sanzberro, Iñigo Iturralde eta Pello Iriarte.
- **Herrilan, ingurumen eta nekazaritza:** lehendakaria Garbiñe Elizegi eta delegatua Jon Elizetxe. Kideak: Jose M^a Garmendia, Florentino Goñi eta Pello Iriarte.
- **Osasuna, gizarte zerbitzuak, kultura eta hezkuntza:** lehendakaria Garbiñe Elizegi eta delegatua Maitane Maritorea. Kideak: Isabel Olabe, Iñigo Iturralde eta Pello Iriarte.
- **Euskara Batzordeko** lehendakaria Garbiñe Elizegi eta delegatua Maitane Maritorea. Kideak: M^a Carmen Iribarren, Iñigo Iturralde eta Pello Iriarte.

APARTEKO ERAKUNDEAK

- Bertziko Partzuergoa: Garbiñe Elizegi titularrak eta Iñigo Iturralde ordezkaria.
- Zahar etxea: Garbiñe Elizegi lehendakaria eta Iñigo Iturralde eta Isabel Olabe kideak.
- Elizondoko Osasun Zentroa: Garbiñe Elizegi, M^a Carmen Iribarren eta Iñigo Iturralde.
- Baztan Ikastola: Maitane Maritorea, Mikel Ortega, Jon Elizetxe eta Florentino Goñi.
- Bertze ikastetxeak: Maitane Maritorea.
- Ehiza eta Arrantza elkarteak: Jon Elizetxe eta Florentino Goñi.
- Kintoko eta Erregerenako mankomunitateak: Garbiñe Elizegi, Mikel Ortega, Jon Elizetxe eta Florentino Goñi.
- Jorge Oteiza museo etnografikoa: Garbiñe Elizegi, Maitane Maritorea eta Isabel Olabe.
- Cederna: Garbiñe Elizegi eta Iñigo Iturralde.
- Animsa eta NUKF: Garbiñe Elizegi eta Mikel Ortega.

URDAZUBI

AZPIEGITURAK → UDALAREN NAHIAREN KONTRA

Pantako igarobidea bota dute Ur Konferazioak horrela aginduta

2004ko uholdeen ondotik eraikia izan zen

kontra zegoela azpimarratu nahi izan du eta erabakia Kantauriko Ur Konferazioarena baino ez dela.

BI ETXETARA JOATEKO EGINA

Pantako igarobidea 2004. urtean eraiki zen Gure egoitza eta Erreka berria etxeetara sartu ahal izateko. Izan ere, urte hartako uholdeen ondorioz, isolaturik gelditu ziren aipatu bi etxeak.

TTIPI-TTAPA

Azken zazpi urteotan pasabide gisa funtzionatu izan du Pantako igarobideak, baina berriki bota egin dute, Kantauriko Ur Konferazioak horrela erabaki duelako. Udalak, bere aldetik, botatzearen



ARGAZKIAK: URDAZUBIKO UDALA

Goiko argazkian Pantako igarobidea ageri da bota aitzinetik. Beheitiko argazkia berriagoa da, bota ondotik ateratakoa.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Migel Migeltorena omendu du Goiz Mendi taldeak

Aurten 80 urte bete dituela-eta, abuztuaren 27an Goiz Mendi mendiko lagunek omenaldia eskaini zioten Migel Migeltorenari. Goizean 09:30ean elkartu ziren herriko plazan eta handik oinez egin zuten Migelen baserriko bidea. Baserriko bisitaren ondotik, Zugarramurdirako bidea hartu zuten. Bi orduko bidea eginez frontoira ailegatu ziren. Zugarramurdiran bazkaldutakoan, *zorionak* kantatu zizkieten eta taldekideen izenean, Lolik eta Karmelek opariak eman zizkieten: Aralarko San Migelen irudia eta bere baserriaren argazkiarekin koadroa. Bazkalondoa giro ederrean pasatu ondotik, igande honetarako, irailak 18, egin zuten hurrengo hitzordua, Done Jakue bideari kostaz ekiteko.



HEZKUNTZA → 2011/2012 IKASTURTEA

Urdazubi eta Zugarramurdiko 41 neska-mutikok hasi dute ikasturtea

Horietako sei lehendabiziko aldiz gan dira eskolara

DATUA

25

Koro eta Margari

Aurten 41 ikasle izanen dira Urdazubi-Zugarramurdiko eskolatan, eta horietako sei, ikasturte huntan hasi berriak dira. Hauetako aunitz, matematika eta halako irakasgaiak ikasteaz gain, artista batzuk dira, dantzan ere ikasten dutelako.

DANTZA IKASTAROA

Gan den urteko udan hasiziren, eta gaur egun 25 haur dira dantzetan aritzen direnak. Astean behin entsaiatzen dute Baztango dantzarietakoa den Mari Kruz irakasle bikainarekin, eta berari esker hiru dantzaldi eskainiak dituzte, herriko bestetan eta Sorginaren Egunean.

Herrian dantzari talde bat izatea ia-ia historikoa da, Zugarramurdin ezagutu ziren dantzari bakarrak duela 60 bat urte aritu baitziren. Gainera, orduko dantzari haiek denak mutikoak ziren, eta gaur egungoak, berriz, gehiago neska dira. Bi muttiko ausart daude bakarrik.

DANTZARI GAZTETXO

biltzen dira astero Mari Kruz irakaslearekin dantzan aritzeko.

Berrikuntzak eta aldaketak bestetan

Aldaketa tiki batzuekin gan dira aurtengo bestak. Ekitaldi berri bat izan da: herri-afaria mo-zorro bestakin. Arrakastatsua suertatu zen, ehun lagun pasa bildu baitziren.

Bertzalde, ahate-jokoa ezin izan zen egin, ez zirelako nahiko zaldun juntatu. Ekitaldi hau egin ahal izateko zaldun trebeak behar izaten dira, eta urtetik-urtera gero eta arazo gehiago izaten dira aitzinera ateratzeko.

Zikiro-jatean ere aldaketa pare bat izan dira: plastikozko basoak eman direla, eta kopa eskaintzerakoan sagarikorea ere eskaini dela lehendabiziko aldiz. Zikiro-jateak hainbat aldaketa izan ditu urteetan, baina, hala ere, duela 100 urteko xarma hura ez du galdu.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Dantzari gaztetxo hauek gan den astean hasi ziren eskolan, udako oporraldiaren ondotik.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Karrikak zimentatzen

Herria hedatzen ari zaigu, eta horrekin karrika berriak sortzen. Hori dela eta, uda huntan zimentatu dira Azketatik Teltxegiko-bordara gaki den karrika, eta Lapiztegiatik Bizkarrondoko-bordara gaki dena. Zimentatzeaz gain, harri-xabalaz egindako espaloi bat ere eman da. Bertzalde, Madarian ere Iriarteko-borda aldera doaien bidea ere zimentatu da.

elika
Dantzak eta ikasturtea

- Dantza irakasketa
- Dantza irakasketa
- Dantza irakasketa
- Dantza irakasketa

2011. Urteko Udako Ikasturtea
2011.09.15 - 2011.10.15 | Tel: 948 831 283 | elika@pinturasaltuyet.com

lñaki Alzuyet margoak

Pintura irakasketa eta irakasketa | Pinturaketa | Berriztatzeak
Dekoratiboa: irakasketa, irakasketa
Lanbete eta irakasketa irakasketa: Pinturaketa
Herri eta irakasketa irakasketa irakasketa da

Hiri-Ttapi-Itzasa - Landolarr. Arzoba - 31711 URDAGUIR
Tel.: 659 862 417 - pinturasaltuyet@yahoo.es

TTPI-TTAPA | 550 zbk. | 2011.09.15

proiektu zerbakiak
15.996

SENPERE

ELKARRIZKETA → IRRATI ESATARIA

Andde Irosbehere irratilaria ahots ezin saihetsia bilakatu da France Bleu irratiko uhinetan

Larresoroko gazteak lotura sakonak ditu Senpererekin

Franck DOLOSOR

Ipar Euskal Herrian gehien entzuten den irratia ren uhinak euskalduntzen ditu Anddek aste-buru guziz eguerditan. Joan den maiatzean aintziratik aritu zen zuzenean Herri Urrats bestaren karietarat, amaren sortetxetik hurbil. Buru gainean kaskoak zituela Peio Oçafraïn uztaiztar gazteari elgarrizketa egin zion Zelanda Berrirat egin zuten bidaiaz.

Andde Irosbehere irratilariak 24 urte berterik ez ditu baina denbora laburrean Iparraldean entzule gehien duen komunikabideko ahots saihestezina bilakatu da. Duela sei urte Gure Irratian bizi izan zuten lehen esperientzia arrunt gustukoa izan baitzuen ildo horretan segitzea deliberatu zuen. Bere boza maiz entzuten da orain Baionatik zabaltzen den Urdin Euskal Herri Irrati publikoan.

• **Larresoron bizi zara baina gutik dakiten lotura berezia duzu Senpererekin...**

Nire ama Bernadette senperrarra da, Zamora familiako zortzi anaia-arrebetarik azkena, Auxtin Zamora olerkariaren

arriba da, beraz. Larresoron pasatu dut haurtzaro guzia, baina 17 urte arte kasik igande guziz joaten ginen Altzibururat, amatxiren ikustera. Orroitz naiz kondatzen zizkidan ixtorioetatzen Senperereko herriari buruz. Orain guttiago joaten naiz baina badakit nire erroak han direla.

• **Zergatik nahi izan zenuen irratilaria izan?**

Ttipititik irratia era-karri nau. Etxean irratia entzuten ginuen maiz. Orroitz naiz ttipitan Gure Irratiko jokoetan parte hartzen ausartzen nintzela. Irratiak baditu bereizitasun interesgarriak: badi prentsa idatziak ez duen bizitasuna, soinuak; irudirik ez da baina entzuleak bere irudimena pizten ahal du. Beste gauza ainitzek ere erakartzen nautelan hortan: jendekiko hurbiltasuna, bai antenan bai eta erreportajeen egiteko momentuan ere; jendeen informazioa... Haatik gaztetan, ez nekien zer lanbide egiten nuen, eta kasualitatez irratian lan egiteko proposamenak ukan ditut, eta horrela hasi naiz. Gaur egun, irratigintza lanbide bat baino gehiago pasio bat da niretzat.

• **Zaletasun honek lan haundia ematen dizu...**

Asteburuko emankizunak euskaraz eguerditan, ortziral goizeko saioa frantsesez hiru astero. Beste kronika ba-



BI HIZKUNTZEKIN LANEAN

«Lotura bat egiten dugu euskaldun eta ez euskaldunen artean... Eta lotura hunek euskararen hedapena aitzinaraz dezakeela sinisten dut»

Andde IROSBEHERE
Larresoroko irratilaria

tzuk ere bai: erreportajeak, agendak, *b.a.-ba du basque* delako kronika, nun hitz zonbaiztu erakasten diedan euskarara mintzo ez duteneri... Baina denbora erdiz naitzen, ordezkapen ainitz egiten ditut beharra badelarik. Uste dut France Bleu irratiko emankizun guziak bederen aldi batez aurkeztu ditudala.

• **Iparraldeko bi mintzairetan ongi moldatzen zara...**

Biziki interesgarria da. Bi hizkuntza erabiltzea beti aberasgarria izaten da. Niretzat aski naturala da, eguneroko bizian erabiltzen ditudan bi hizkuntzak baitira. Hori dela eta, euskarak frantsesak baino toki murriztagoa du antenan, eta pertsonalki nahiko nuke presentzia gehiago ukan dezan, batez ere goizetan: baditugu bizpahiru minutako kronikak euskaraz, frantses emankizunen barnean, eta horrelakoa biziki interesgarriak dira euskara ez dakien publikoak hizkuntza en-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Andde Irosbehere irratilaria lanean.

tzuten baitu. Lotura bat egiten dugu euskaldun eta ez euskaldunen artean... eta lotura hunek, zubi hunek, euskararen hedapena aitzinaraz dezakeela sinisten dut.

• **Zoin da lanaren alderik onena? Eta txarrena?**

Alderik onenak jendea eta Euskal Herria ezagutzea dira. Lanean hasi naizen geroztik, gauza ainitz ikasi eta deskubritu dut! Hortan da plazer haundiena niretzat. Alde txarrak gutti dira. Batzutan, tratatu behar ditugun gaiak edo egin behar ditugun elgarrizketak inposatuak zaizkigu eta ez dira baitezpada gustukoena... Hale-re, plazer ainitz hartu dut Larraineko Monzon pastoralari buruz erreportaje bat egiterakoan. Le-kukotasun interesgarri eta hunkigarriak biltzeaz gain, musika eta kantu

ederrekin beztitu nituen elgarrizketak, eta nire iduriko irratian erreportaje-ek behar dute soinu bizi... Bestalde, kronika bat egin nuen atzerrian bizi diren euskaldun batzueri buruz, telefonoz. Potreta batzuk ahaztezinak geldituko dira, horien artean, Jose Goitia Kuban bizi den argazkilaria, edota Laurent Dufour, sortzez kanboarra, hunek Estatu Batuetan izugarriko fortuna egin du pertsona ezagunen ile-mozlea bilakatu! Luxuan bizi izanki ere, pertsona simplea da.

• **Eta elkarrizketatu nahi zenukeen norbait?**

Amets bat baizik ez bada ere, Steven Spielberg! Ez baitezpada egin dituen film oso arrakastatsuenengatik, baizik eta laster aterako den *Tintin* filmaren aipatzeko! *Tintin* Hergé-ren komikiaren zale amorratua naiz.

HEZKUNTZA → ESKOLEN SARTZEA

225 neska-mutikok hasi dute ikasturte berria

Eskola publikoan 50 ikasle dira, ikastolan 75 eta San Josepen 100

Joana GUERENDIAN

Irailaren 1ean eta 5ean eskolak berriz hasi dira Sarako haurrentzat. Hiru eskoletan haur kopuruaren goititze bat notatzen ahal da. Eskola publikoan 50 ikasle kondatzen dira, ikastolan 75 inguru, eta du darik gabe, emendatze handiena San Josepe eskolak ezagutu du 100 bat ikasle baitira.

Jakin beharrekoa da haurrak ahal bezain ongi errezipitatzeko ikastolan obrak eginak izan direla. Eraikuntza handian gelak berriz antolatuak izan dira leku gehiago izateko.

HAURTZAINDEGIA

Bertze urtetan bezala, haurzaindegia irekia izanen da goizetan 07:30etik 09:00 arte eta

arratsaldetan 16:30etik 18:30 arte.

Sarako basurdeak

Sarako Izarrak sasoi-na prestatzeko abuztuaren 27an Hernanin lagunarteko matxa bat jokatuzuen hango ekipa-

ren kontra. Galdu egin zuten, 24-27, baina basurdeek joko polita erakutsi zuten. Irailaren 2an bertze matxa bat antolatua izan zen aldi hontan Reichelles-en kontra eta eguna giro onean pasatu zen.

Sarako Izarrak Comité côte basque/ Landes txapelketan parte hartzen du. Horien lehen matxa urriaren 2an iraganen da Avenir Julienois-en kontra Saran. Zuen sustengua itxoi-ten dute!



ARGAZKIA: CAROLINE DERSSELLE

Usopop-en bigarren edizio arrakastatsua

Bere bigarren ediziorako Usopop-ek artista frango gomiatu zituen eta arrakasta izan du. Hain zuzen ere, 450 bat lagun hurbildu ziren Lizarrietako lepora joan den abuztuaren 27an. Gaua goxoan pasatu zen eta antolatzaileak arras kontent dira festibala honek duen bilakaeraz. Festibal honen helburua talde berriak ezagutaraztea da eta dinamika kultural bat sortzea ere bai. Bigarren edizio honetako emaitzek erakusten dute arrakasta hartzen ari dela eta agian bertze edizio ainitz ezagutuko ditu.

FLASH

Erretretadunen ateraldia

Erretretadunen urteroko ateraldia irailaren 21ean egingen da Gipuzkoan. Egitaraua hauxe izanen da: autobusak 08:30ean abiatuko dira plaza-tik. Lehenik Getariko herriaren bisita egingen da eta ondotik Txakoli saia batena. Egurditan Usurbilko Aginaga sagarnotegian egingen da bazkaria eta itzultzean Beran pausa bat programatua da zintzurra bustitzeko.

Izen-emateak Herriko Etxean egiten dira, azken epea ortziral hau da, irailak 16, 12:00 aitzin. 28 euro galdetuak dira izena ematean.

VTT ibilaldia

Irailaren 25ean, igandea, VTT ibilaldia iraganen da. Bi ibilbide proposatuak dira, bat 22 kilometrokoa eta bertzea 32koa. Abiatzea 09:00etan izanen da plaza-tik. Ibilaldia honek Sarako txokoak bizikletez deskubritzeko aukera ematen du. Parte hartzeko lizentzia bat edo medikuaren agiria behar da eta kasuak beharrezkoa da.



EZKONTZAK

Rui Manuel Nobrega Dos Santos eta **Maria Consuelo Valencia Isaza**, Portugal eta Kolonbiakoa, Lesakan abuztuaren 27an.

Manuel Ugartemendia Almiron eta **Saioa Eskamendi Garmendia**, Uruguai eta Errenteriakoa, Lesakan abuztuaren 20an.

Jose Telletxea Otxoteko eta **Maria Belen Guerra Irigoien**, Lesaka eta Igantzikoa, Igantzin irailaren 2an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Anne de Carlos Lasa, Leitzakoa, uztailaren 31n.

Jon Rodriguez Irigoien, Lesakakoa, abuztuaren 25ean.

Oneka Olaizola Mendegia, Lesakakoa, irailaren 2an.

Eneko Valverde Leiza, Lesakakoa, irailaren 2an.

Eider Zelaieta Artieda, Legasakoa, abuztuaren 14ean.

Enaitz Aginagalde Iparragirre, Etxalarkoa, abuztuaren 18an.

Maddi Leiza Maeztu, Arantzakoa, uztailaren 24ean.

Oinatz Elizalde Larretxea, Iturengoa, ekainaren 28an.

Ane Deskarga Ariztoi, Iturengoa, uztailaren 21ean.

Irai Olaizola Anso, Goizuetakoa, irailaren 7an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Frantxiska Berroeta Zubieta, Lesakakoa, abuztuaren 27an, 97 urte.

Carmen Pardo Romero, Iruritikoa, abuztuaren 28an, 84 urte.

Modesto Gago Agesta, Sunbillakoa, abuztuaren 31n, 90 urte.

Pedro Telletxea Eltzaurdia, Berakoa, irailaren 2an, 87 urte.

André Etxeberri, Sarakoa, abuztuaren 25ean, 75 urte.



Raimundo PEREZ IRIARTE

Beran, 2007ko irailaren 16an
IV. URTEURRENA

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*

ZURE FAMILIA



Joakin SANTESTEBAN INDAKOTXEA

Zubietan, 2011ko abuztuaren 22an, 86 urte zituela

*Adixkide bat bazen
orotan bihotz bera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.
Nun hago, zer larretan
Iramendiko artzaina.*

ZURE FAMILIA



ttipi-ttapa | Inoentzako, 12 | ETTXK, PA
94835458

TXIRRINDULARITZA → BI EGUNETAN BINA HITZORDU

Mendi bizikleta ibilaldiak egingen dira Lesakan, Plazaolan, Saran eta Beran

Irailaren 18an Lesaka eta Plazaolakoa egingen dira eta 25ean Sara eta Berakoa

TTIPI-TTAPA

Bi egunetan bina hitzordu, eta bat bertzea -rengandik ez sobera urruti. Mendi bizikleta gustuko dutenek horretarako aukera ederra izanen dute heldu diren as-teburutan. BTT edo mendi bizikleta ibilaldiak antolatu dituzte Lesakan eta Plazaolan irailaren 18rako eta Saran eta Beran irailaren 25erako.

LESAKAKO BTT

Beti Gazte Elkarteak antolatuta, igande honetan, irailak 18, egingen da Lesakako BTT ibilaldia. Bi ibilbide izanen dira aukeran, 52 kilometrokoa bat eta 32 kilometrokoa bertzea, erdi mailako zailtasuna eta zailtasun altua dutenak eta 1.700 metroko desnibel positiboarekin.

Kirolariak 09:00etan aterako dira Lesakako plazatik. Hori baino lehen, 08:00etatik aitzinera eman beharko da izena, edo Internet bidez (www.betigazte.net edo www.kirolprobak.net) or-tzegun hau baino lehen. Egun berean apuntatuz gero, bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek 17 euro. Internetez eginez gero, berriz, 15 euro.

350 lagunetan finkatu dute partehartzaileen muga.



ARGAZKIA: SARA KO TURISMO BULEGOA

Txirringulariak joan den urteko Sarako mendi bizikleta ibilaldian.

PLAZAOLAKO BTT ETA MARATOI ERDIA

Natur bideen Europako Eguna dela aprobe-txatuz, bi ekimen prestatu ditu Plazaola Partzuego Turistikoak: VIII. Mendi Bizikleta Martxa alde batetik, eta V. Maratoi Erdia bertzetik.

Maratoi Erdia aukeratzen dutenek Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugatik Lekunberrirako bidea egin beharko dute, 21 kilometro. 09:30ean aterako dira. Izen-ematea lasterketa baino lehen egin beharko da eta asteazken hau, irailak 14, izanen da azken eguna. Lekunberriko Turismo Bulegoan edo

www.plazaolakiroiak.org helbidean egin beharko da, 15 euro ordainduta.

Mendi Bizikleta Martxa nahiago dutenek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran: 40 kilometrokoa (Andoain-Lekunberri), 15 kilometrokoa (Leitza-Lekunberri) eta 4 kilometrokoa (Lekunberri-Mugiro-Lekunberri). Kasu hauetan aitzinetik edo egun berean eman daiteke izena.

Ibilbide luzea aukeratzen dutenek izena aitzinetik ematen badute 11 euro ordaindu beharko dituzte eta egun berean 15 euro; hamabortz kilometrokoa aukeratuz gero, aitzinetik 7 euro eta

egunean bertan 9 euro; lau kilometroko bidea aukeratzeko duenak aitzinetik 2 euro eta egun berean 3 euro ordaindu beharko ditu.

SARAKO BTT

Sarako Turismo Bulegoak antolatuta da Sarako Mendi Bizikleta proba eta bi ibilbide izanen dira aukeran: 22 kilometrokoa eta 32 kilometrokoa. Goizean, 09:00etan aterako dira plazatik eta 1.400 metroko maldari egin beharko diote aurre. Kaskoa beharrezkoa izanen da, baita lizentzia edo urtebete baino guttiago duen medikuaren agiria ere.

Bizikletan ibiltzeko ateraldiaz gain, zintzur bustitzea, hornidura puntuak eta opariak ere izanen dira parte hartzen dutenentzat.

Ibilaldian atera nahi duenak zortzi euro ordaindu beharko ditu eta informazio gehiago nahi badu Turismo Bulegoara jo dezake (0033) 559 542014.

BERAKO BTT

Hilaren 25ean, 10:00etan, bertze mendi bizikleta ateraldi bat antolatu du Beran Gure Txokoa Elkarteak. Matzadatik abiatuta hiru ibilbide izanen dira aukeran, joan den urtean bezala: lehendabizikoak 30 kilometro ditu, bigarrenak 20 kilometro eta haurrenak 10 kilometro. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkideak ez direnek 15 euro.

Parte hartzaileei kamisetak eta txirringularitzako materiala banatuko zaizkie opari gisa. Horrez gain, lasterketaren bukaeran, Kate Bikek oparitutako materiala eta bi bizikleta zozketatuko dira, baita Larun Haizpe Berako merkatarien elkarteak emandako diru txartelak ere. Luntx ttiki bat ere izanen da.

LESACA	PLAZAOLA	SARA	BERA
2	3	2	3
IBILBIDE 52 kilometrokoa bat eta 32 kilometrokoa bertzea izanen dituzte aukeran.	IBILBIDE 40 kilometrokoa, 15koa eta 4koa aukeran.	IBILBIDE 32 kilometrokoa bat eta 22 kilometrokoa bertzea izanen dituzte aukeran.	IBILBIDE 30 kilometrokoa, 20koa eta 10koa aukeran, azken hori haurrentzat.

Duela lauzpabortz urte hasi zen erremontean Andoni Saldias oiztarra eta orain, 19 urte dituenean, profesionala da. Abuztuaren 13an debutatu zuen Hernaniko Galarreta

frontoian profesionaletan, Oriamendi enpresarekin. Hasteko, sei hilabeterako kontratua egin diote, baina gerora urtero berritzen omen da kontratua.

Gogotik ari da entrenatzen eta horrez gain, zaintzen ere bai, diestista baten aginduei kaso eginez. Gaztea den arren, erremontean segitzea gustatuko litzaioke.

Andoni SALDIAS | Oizko erremontista profesionala

«Indarra da nire ezaugarri nagusia, eta teknika hobetu behar dut»

G. PIKABEA | OIZ

Herriko frontoian laxoan jokatzuz eman zituen bere lehenbiziko pilotakadak Andoni Saldias, oraindik mutikoa zela. Handik erremonteko saltoa egin zuen eta 14-15 urterekin klasekide batzuk Doneztebeko erremonte eskolan izena eman zutenean, eurekin animatu zen. Hantxe eman zituen urte bat eta erdi, Landerrekin entrenatzen. Gero Iruñerako bidea hartu zuen eta bolada batez han ibili zen erremontean. Azken bi urteotan, berriz, Hernaniko Galarretan ibili da eta oraindik hala segitzen du. Baina orain ez da afizionatua, orain profesionala da.

Bi hilabetez profesionalekin entrenatzen ibili ondotik, abuztuaren 13an debutatu zuen Hernaniko Galarreta frontoian eta «arrunt ongi» joan zela kontatu digu. «Hasieran pixka bat urduri» sentitu arren, adierazi digunez, «partida ongi hasi zen eta akitu arte ongi joan zen». Oriamendi enpresa sortu zenetik, bera eta Jaime Juanmartiñena aňorgarra dira profesionaletan debutatu duten lehenbiziko bi jokalaririk.

Afizionatuetatik profesionaletara pasatuta ez omen du alde handirik nabaritu: «salto



UTZITAKO ARGAZKIA

Andoni Saldias oiztarra jokoan.

haundi haundia ere ez da izan. Bi hilabete daramatzat profesionalekin entrenatzen eta entrenamenduak berdintsuak dira, nahiz eta partida batzuk gogorragoak diren». Eta egia errateko, abuztu gogorra izan du, atsedean hartzeko denbora gehiegirik gabe. Debutatu zuenetik, bi astez zazpi partida jokatu baititu.

Azken aldian, partidak tarteko entrenamendu guttiago egiten dituzte, baina normalean entrenatzera Galarrretara joaten da Oizko

PROFESIONALETAN
«Salto haundia ere ez da izan. Bi hilabete daramatzat profesionalekin entrenatzen eta entrenamenduak berdintsuak dira, nahiz eta partida batzuk gogorragoak diren».

ENTRENAMENDUAK
«Astean hiru aldiz entrenatzen dugu, astelehenetan, asteazkenetan eta ortziraletan. Orain, ordea, astez ere partidak izaten ditugu».

gaztea, bertze profesionalekin entrenatzera: «San Migel, Zubiri, Barronetxea, Oinatz, Matxin VI.a...», aipatu dizkigu. Gaineratu digunez, «astean hiru aldiz entrenatzen dugu, astelehenetan, asteazkenetan eta ortziraletan. Orain, ordea, astez ere partidak izaten ditugu».

Entrenamenduez aparte, aunitz zaintzen dela ere aitortu digu Saldias. Aunitz argaldu da eta dietistarekin dabil, eta berekin, aunitz kontrolatzen duela azaldu digu.

INDARRA AIPATZEKOA

Atzelaria da eta indarra da bere ezaugarri nagusienetakoa. Ezagutzen duen edozeini galdetuz gero ere, horixe nabarmenduko luke. Teknika, ordea, hobetu behar omen du: «teknika aunitz ez dut eta ikasi beharra dut».

Debutatu berria izanik, aunitz erreparatzen die bertze profesionalei eta gustukoena artean, Migel Mari Urrutia saldiastarra eta Julen San Migel doneztebarra aipatu dizkigu. Eta gustuko frontoia? «Herritikietan ere ibiltzen gara baina nik nahiago dut Galarreta».

ERREMONTA BIZIBIDE IZATEKO AMETS

Oraindik gaztea bada ere, 19 urterekin, garbi du erremontean segitu nahi duela. Maiztasun geroztik, Martikolan egiten du eta hilabete honetan ere segituko du. Hori akitzean, erremonteari dedikatu nahi dizkio orduak, eta Oriamendirekin duen sei hilabeteko kontratua ongi aprobetxatu nahi du. Gerora, urtero berritzen dute kontratua. «Bitartean lana ateratzen bada, lanean ere segituko dut». Ikastea ez baita berea: «ikastea ez zait gustatzen», dio. Erremonteko dohainak badituenez, ea baduen zortea horretan.

AIZKORA → NAFARROA ETA EUSKAL HERRI MAILAN

Aizkora txapelketetako hainbat saio jokatu dira heldu diren asteburuetan

Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako aizkolariak ariko dira

TTIPI-TTAPA

Aizkora gustuko duenari ez zaio aukerarik faltako datozen egunetan, lehenbiziko, bigarren eta hirugarren mailako saioak jokatu baitira. Horietako aunitzetan, Euskal Herriko edo Nafarroako txapelkunak erabakiko dira. Igande honetan, **Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketako** kanporaketa jokatu da Arbizun eta eskualdeko ordezkari bakarra Oihan Larretxea beratarra izanen da. 12:00etan hasiko da saioa eta sailkatzen diren lehen sei aizkolariek

lako saioak jokatu baitira. Horietako aunitzetan, Euskal Herriko edo Nafarroako txapelkunak erabakiko dira.

Igande honetan, **Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketako** kanporaketa jokatu da Arbizun eta eskualdeko ordezkari bakarra Oihan Larretxea beratarra izanen da. 12:00etan hasiko da saioa eta sailkatzen diren lehen sei aizkolariek

HERRI KIROLAK → HAINBAT MODALITATETAN

Bikain moldatu dira eskualdeko kirolariak Euskal Herriko herri kirol txapelketetan

Bigarren eta hirugarren postuak eskuratu dituzte batek baino gehiagok

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko hainbat herri kirol txapelketa jokatu dira azken aldian eta guztietan ibili

dira fin eskualdeko kirolariak.

Txinga eramateko txapelketan bigarren postua eskuratu du Mielanjel Sukuntza leitza-rrak. 21 plaza eta 10,33 metro eginez, erraz hobetu du joan den urteko bere marka (16 plaza. 1/2, 6,5 metro).

Gizonezkoen Maila Nagusiko Trontza Txapelketan, iaz bezala, hirugarren gelditu dira Igor



UTZITAKO ARGAZKIA

Oihan Larretxeak Nafarroako eta Euskal Herriko I. Mailako Txapelketetan parte hartuko du.

Elizondon azaroaren 6an jokatu den finalerako txartela eskuratu dute.

Irailaren 25ean **Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako** finala jokatu da Uhartzen (Iruñea). 17:30ean hasiko da lehia eta bortz aizkolarietatik hiru eskualdekoak izanen dira: Arkaitz Olano leitza-rra, Jose Antonio Loiar-

te zubietarra eta Beintza-Labaiengo Xabier Mindegia.

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa urriaren 2an jokatu da Etxarri Aranatzan, 13:00etatik aitzinera. Bertze aizkolariekin batera, inguruko hauek ere izanen dira: Donato Larretxe arantzarra, Ander Erason aurtizta-

rra, Jon Rekondo leitza-rra, Oihan Larretxea beratarra eta Ruben Saralegi leitza-rra.

Egun berean **Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketako** jokatu da Aizarnazabalen, 18:00etan hasita. Sei aizkolaria ariko dira nor baino nor, eta tartean Jose Antonio Loiar-te zubietarra eta Asier Pellejero aresoarra.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mielanjel Sukuntza leitza-rra Euskal Herriko Txinga Txapelketan bigarren izan da aurten ere.

Lasaga beratarra eta Jabier Galarregi etxalartarra. Lanak 15 minututan eginez, iazko denbora 56 segundotan hobetu dute.

Emakumeen Trontza Txapelketan Bera-ko Nerea Sorondo eta Amaia Gartzia bigarren sailkatu dira, 05:39ko denbora eginez.

Lasto-jasotzeko txapelketan igantziarren lana aipatzekoa da. Iaz bezala, bigarren gelditu da Iñaki Bereau (22 jasoaldi+segundo 1); hirugarren Karlos Sein izan da (21 jasoaldi+3 segundo), bederatzigarren Oskar Telletxea (19 jasoaldi+4 segundo); hamabigarren Arkaitz Retegi (12 jasoaldi) eta hamalagarren Eneko

Telletxea (11 jasoaldi). **Orga Joko Txapelketan**, seigarren eta zazpigarren postuak Joseba Petrirena beratarrentzat (2 itzuli eta 1,50 metro) eta Lazaro Bujan leitza-rrarentzat (1 itzuli, 1/2, 6,20 metro) izan dira, hurrenez hurren. Jabier Galarregi ere aritzekoa zen, baina ez zuen parte hartu.

irailak 15 - 29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Lehiaketak



ELIZONDO | 2001.09.24-25

Pirinioetako behi onenen lehiaketa-enkantea

Piriniar arrazako Espainiako lehiaketa-enkantea eginen da. Ehunka abelburu ikusteko aukera izanen da, baita azokak, lehiaketak, dastaketak...

Jardunaldiak



ETXALAR | 2011.09.16-18

Hegaztiak hobe ezagutzeko jardunaldiak

Hegaztien inguruan gauza gehiago ezagutzeko asmoz, aste-buru honetan jardunaldiak antolatu ditu Bertizko Partzuergo Turistikoak.

Erakusketak



SENPERE | 2011.10.01 arte

Mariemi Otaolaren eskulturak Larraldean

Irailaren 1etik urriaren 1era Mariemi Otaola artista bilbotarraren eskulturak ikusgai daude Larraldean, ortziraletik igandera, 16:30etik 20:30era

kin, 21:30ean bertso afaria Julen Zelaia eta Oskar Estangarekin, gauerditik aitzinera Heineken besta DJ Pistolsekineta 04:00etan pintxoak doan.

GOIZUETA

Iskibi kanpinaren Euskal Jaia

Irailaren 18an eginen da. Xehetasunak 30. orrian.

BERA

Dantzari Ttiki Eguna

Irailaren 24an antolatu du Gure Txokoa elkar-teak. Xehetasunak 15. orrialdean.

DONEZTEBE

Nafarroako Nekazaritzaren Eguna

Irailaren 24an Nafa - rroako Nekazaritzaren XXVII Eguna antolatu du UAGN sindikatuak.

ITUREN

Joaldunen Eguna

Irailaren 24an antolatu du Ibintzak. Xehetasunak 21. orrialdean.

Jardunaldiak

ETXALAR

Hegaztien inguruko jardunaldiak

Irailaren 16tik 18ra hegaztien inguruko jardunaldiak antolatu ditu Bertizko Partzuergo Turistikoak. Xehetasunak 18. orrialdean.

Azokak

DONEZTEBE

Udazkeneko Merkatua

Irailaren 23an Udazkeneko Merkatua antolatu du Doneztebarrak Elkar-teak. Xehetasunak 22. orrian.

Ikastaroak

LESAKA

Meditazio tailerra

Irailaren 16an barre-

Erakusketak

ELIZONDO

Batzan-Bidasoaldeko Anfas elkartearen 50. urteurrena

Irailaren 19tik 30era 50. urteurreneko erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

SENPERE

Mariemi Otaolaren lanak Larraldean

Irailaren 3tik urriaren 1era. Artista bilbotarraren eskulturak ikusgai Larraldean.

Bestak

ANIZ

Arrosarioko Amabirjinaren bestak

Urriaren 2tik 5era. Xehetasunak 35. orrialdean.

ARANO

Atzeratutako Santioak

Irailaren 17an. Xehetasunak 31. orrialdean.

IGANTZI

San Migel bestak

Irailaren 28tik urriaren 2ra. Xehetasunak 14. orrialdean.

URROZ

San Migel bestak

Irailaren 28tik urriaren 2ra. Xehetasunak 24. orrialdean.

DONEZTEBE

Besta ttikiak

Irailaren 23 eta 24ean. Xehetasunak 22. orrialdean.

AMAIUR-ARIZKUN-ERRATZU

Errebestak

Irailaren 23-24an. Xehetasunak 36.ean.

ETXALAR

Urrizokietako bestak

Irailaren 14 eta 18an. Xehetasunak 18. orrialdean.

Kontzertuak

ELIZONDO

DJ Aitormix & DJ Madgic Iargi ostatuan

Irailaren 16an ariko dira, 22:00etatik goiti.

BANKA

Esperantza biradak gauldia elizan

Irailaren 23an

20:30etik aitzinera, Izarrak, Pil pil, Nadine Elgoyhen eta Joa, Artxeroak, Maitena Monaco, Xalbador eta Ihdoi, Aurelie Etchepare eta Marina Elizondo, Aire Ahizpak eta Bankarrak. Sartzea uririk.

Ospakizunak

ETXALAR

Hainbat ekitaldi Herriko Ostatuan

Irailaren 17an 17:00etan mus txapelketa, 20:00etan trikipo-teoa Irune eta Itxasore-

PROPOSAMENA

IGANTZI

Dantzarien lana ikusgai San Migel egunean

Uda izan ohi da besta garaia, baina udazken hasieran ere bestak izaten dira gure inguruan. Hainbat herritan errebestak edo besta ttikiak izanen dituzte. Urrozen eta Igantzin, berriz, herriko bestak, San Migelak. Bortzirietako herrian, egun handiko Meza Nagusiaren ondok dantzari gazteak nahiz helduak lanean ikusteko aukera izanen da.



neko pentsamenduen joan-etorriak isilarazten ikasteko tailerra, doan. 19:00etatik 20:00etara Dasya zentroan. Deitu edo idatzi: 691 025855 centrodasya@gmail.com.

BERA

Euskal dantzak

Irailaren 17tik azaroaren 19ra euskal dantzak ikastaroa antolatu du Gure Txokoak, larunbatean 12:00etan. Izen ematea irailaren 17an.

Hitzaldiak

BERA

Autoestimaz

Irailaren 19an *Empoderamiento, autoestima y salud mental* hitzaldi irekia Belandeta aretoan, 18:00etan. Hizlaria: Miren Peralta.

Lehiaketak

ELIZONDO

Pirinioetako behien lehiaketa-enkantea

Irailaren 24 eta 25ean Espainia mailako lehiaketa enkantea egingen da. Xehetasunak 34. orrian.

BAZTAN-BIDASOA

Boluntarioria eta elkartasunak bideoak

Azaroaren 11n akituko da Bidelagun elkarteak *Berteen larruan jarri* izenburupean antolatutako bideo lehiaketa.

Mendi Itzuliak

BERA

Hamargarren Mendi Itzulia

Irailaren 18an egingen da Mendi Itzuliaren 10. edizioa. 32 km.ko ibilbidea.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Jose txo hargina
MITXEL MURUA
ANTTON OLARIAGA

Elkar, 2011

Elkar-en irakurle hasiberrientzako bildumako, Ba-telako azken lanean, herriko seme bat udalera, boterera, herritarren laguntzarekin nola ailegatu den kontakten duen istorioa argitaratu du. Mitxel Muruak harria lantzen duen gizon indartsu baten ipuina idatzi du. Nola diren gauzak, azkenean alkate bilakatzen da. Literaturaren aldarrikapen eta jolas gisa definitu du lana idazleak. «Literaturarik gabe, nola egin umea moralaz jabetzeko? Zer dagoen ongi eta zer gaizki jakiteko? Gaizki dago lapurtzea, baina zergatik? Literaturak badauka hezkuntzan zeregina, eta ipuin txiki honetan bada-go aldarrikapen hori: erakutsiko dugu, baina has gaitzen gauzak kontaktetik». Funtzio hori kontuan izan du zarauztarrak, eta literatura transmisioa dela pentsatzen duenez, ipuin tradizionalaren egitura hartu eta forma berri bat ematen saiatu da. Ahalegin hori alferrik litzateke, ordea, Antton Olariaga irudigileak espiritu hori jaso ez balu, istorioari bizirik eman ez balio.

Musika




Gure negu hotzak

IZATE

www.izate.net

Izate taldea bere azken lanaren emaitza aurkeztera dator, Donibane-Ziburuko laukote rockeroak, hiru urtez «Gure negu hotzak» izeneko disko berriaren konposaketak eta grabaketa landu ondoren. Bigarren lan honetan ere, auto-ekoizpena eta musika librearen ildoak segitu du taldeak. Hamabi kantu berriz osatua, erritmika indartsu, gitarra kementsu eta ahots goxo ala bortitz batzuen bidez, hitzen gorputza azpimarratzeko nahikeriarekin. Hau-ek, Odei Barroso bertsolaria, Xabi Biscay kantaria (Sorotan Babies eta BKBO) eta Otalazt olerkilariarekin eskutik idatziak. Hamar bat urteko ibilbideari esker, Izate lapurtar taldea heldutasun gehiagorekin agertuko da Euskal Herriko taulen gainean, energi-az bateriko zuzeneko emanaldiak eskaintze-za. Kontzertuak www.izate.net webgunean eta aurkezpen kantua entzungai www.myspace.com/izate webgunean.

Internet



Ardoa dastatzen ikasteko webgunea

CATARVINO.COM

El orriko (Bizkaia) Ardoxa Gastronomía Elkar-teak ardoa dastatzen ikasteko jakingarriak euskaraz azaltzen ditu www.catarvino.com/euskara.html webgunean. Dastatzea produktu baten azterketa sensoriala egitea da, kasu honetan, ardoarena. Horretarako, ikusmena, usaimena, dastamena eta ukimena erabiliko dira. Bakoitzaren ezaugarriak eta erabili behar diren tresnak zehazten dira webgunean. Horretaz gain *Hileko Gaia* atalean, hainbat gomendio eskaintzen dira, oso era didaktikoan. *Saia zaitz* sailean, hainbat gomendio orrialde nagusian agertzen den dastatzeko teknika ikasitakoan, ardo-mota desberdinen ezaugarriak bereizten ikasiko dute. *Hiztegi Enologikoa* edo *Egileak eta zure iritzia* atalen bidez, gaian gehiago sakontzeko edo norbere zalantzak eta iritzia adierazteko aukera eskaintzen du. Bideoak ere ikus daitezke.

Nire aukera



Jexux BAILON
Elizondiko irakaslea

«Bi asteburu erabat ezberdin eta biak izaten ahal dira perfektuak»

Irakasle lanak asti librean uzten diola onartzen du Jexuxek eta denbora horretarako afizio ezberdinak ditu: «mendia gustokoa dut, hondartza ere, zinea, antzerkia, musika...». Horregatik, beretzat bi asteburu erabat ezberdin izaten ahal dira perfektuak: «larunbatean formal ibili eta igandean Baztango Mendigoizaleekin mendira joan egun pasa edo larunbatean lagunekin bazkaltzera edo afaltzera joan eta gero parranda eder-rra botatzea. Biak bateratzea ez da posible». Zinema bereziki gogoko du eta azken aldi-ean ikusitakoan artean, Montxo Armendarizen «No tengas miedo» pelikula «inpaktatu nau», Aktoreen artean, «Luis Tosar arras gogoko du eta berriki antzerkian zuzenean ikusteko aukera izan dut». Oporretan Holandan eta Belgikan izan da uda honetan eta «gogoia dut Europako Iparralde ezagutzeko». Hainbat mobidatan ibilia da Jexux, «baina «poliki-poliki ikasten ari naiz ezetz erraten eta gauza batzuk uzten».

ETXEBIZITZAK

salgai

ETXALAR. Zaharberri-
teko den borda salgai,
lur eremuarekin. ☎661
121540.

ETXALAR. Bi solairuko
etxebizitza adosatua
salgai, errentan emate-
ko edo erosteko aukera-
rekin. Estreinatua gabe,
zuzenean promotorea-
rengandik. Garajea eta
txokoa ere bai. Denak
kanpora ematen du.
☎669 432480/629
443405.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA,
ULTZAMA eta
IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak,
partzelak, baserriak, bor-
dak, lokal komertzialak eta
nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA
alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak,
bordak eta lurra behar
ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000
metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Pisu salgai. 3 lo-
gela, 2 bainugela, terra-
za handia. Dena kanpo-
ra begira. 36 m²ko atikoa
aukeran. ☎650 981950.

DONEZTEBE. Egoera
onean dagoen pisua sal-
gai. 2 logela eta traste-
lekuarekin. 114.000 eu-
ro, 19 milioi pezeta. ☎649
472658.

DONEZTEBE. Ogiberri-
ren gainean pisua salgai.
Sukaldea, 2 logela, egon-
gela, 2 bainugela, tras-
telekua eta 36m²ko terra-
za. Dena hegoaldera.
☎656 770373.

DONEZTEBE. Parrokia
karrikan 130 m²ko pisu
eraberritua salgai. 3 lo-
gela, egongela, sukaldea,
2 bainugela eta balkoi-
terraza. ☎619 374998.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ERATSUN. 3 borda sal-
gai, lur eremuarekin.
☎943 217817.

LESAKA. Etxebizitza bi-
familiarra salgai, prezio
onean. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

ZUGARRAMURDI. Pisu
errentan ematen da. Su-
kalde-egongela, bainu
bat, 3 logela eta terraza
ttikia baditu. ☎675
520339.

BERA. Eztegarra pasea-
lekuan pisu mobleztatua

errentan emateko. ☎948
630270/ 678 542773.

ETXALAR. Herrigunean
etxea errentan emateko.
Baratzea egiteko moduan
eta lorategia re badu.
☎948 635142.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

**MALERREKA, BERTI-
ZARANA EDO BAZTAN-
en** baserria edo etxea
errentan hartu nahi dugu.
☎667 602597.

ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

IRUÑEA. Pisu osatzeko
2 neska behar dira. 200
euro (berogailua barne).
☎620 747213.

IRUÑEA. Lagun bat be-
har da ikasle pisu bat kon-
partitzeko. ☎675 714360/
948 637931.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Azkaine karri-
kan 24 m²ko lokala salgai.
Orain arte garaje moduan
erabilia. ☎667 796439.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LESAKA. Plaza Berria karri-
kan, etxabe edo bajera
errentan emateko. Bule-
gorako prestaturia, bertze
edozein lanerako molda-
tu erraza. Behar baduzu...
diruagatik konponduko
gara. ☎948 630287 / 619
530386.



LESAKA. Plazan garaje
itxia errentan emateko.
☎675 714360/ 948
637931.

ZERBITZUAK
zurgindegiak**LANA**

eskaintzak

SARA. Jatetxe batean
zerbitzari euskalduna eta
esperientziaduna behar
da asteburuetan lan egite-
teko. ☎(0033) 559
542131/ 686 561525.

BAZTAN. Emakume eus-
kalduna behar da hau-
rrak zaindu eta etxeko la-
nak egiteko. ☎689
805677/ 948 580210.

**LARRAUN, LEKUNBE-
RRI ETA ARAITZ-BETE-
LU**n kirol ekintzetarako
monitorea behar da ae-
robic, pilates, gimnasia...
egiteko. Irailean haste-
ko, euskalduna. ☎948
604545 / 649 205310.

ZUGARRAMURDI. An-
salas ostatuan lan egite-
ko neska bat behar da.
Euskara eta frantsesa da-
kizkienak. ☎948 599082.

Jatetxe batean **sukalda-
ria** behar da, experien-
tziaduna. ☎686 561525.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(abuztuaren 26tik irailaren 2ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 24,00 € (=)

Zerri gizena
1,223 € kilo. (-0,012)

Zerramak:
0,420€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,16 (=)

1.koa 3,86 (=)

2.koa 3,62 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,24 (=)

1.koa 3,96 (=)

2.koa 3,84 (=)

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00 (=)

idixkoak 200,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,00/8,70

8-10 kilokoak: 6,70/6,90

LANA

eskariak

URROZ. Aiton-amonen ilea apain dezaket bakoitzaren etxean. Ile-apaintzaile tituluduna. ☎689 126822.

Gizonezko batek **enkofratzaile** edo **igeltsero** lanak eginen lituzke. ☎660 698567.

Emakume bat adinekoak zaintzen edo bertze edozein lanetan ariko litzateke. Asteburuetan lanean aritzeko prest da. ☎671 122776.

MOTORRAK

tailerrak

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI

(gasolina eta diesela)

MITSUBISHI

(luze eta laburrak)

TURISMOAK



MOTORRA

salerosketak

Audi A3 2.0 TDI Ambition autoa salgai. 140 cv, 3 ate, gorria, 140.000 km. 12.000 euro. ☎660 368460.



Citroen Xsara 1.4 I salgai, 2001ekoa, baina bakarrak 24.000 kilometroekin. Beti garajejan ego-na. ☎695 707644.

Toyota Land Cruiser 90 Vx autoa salgai, 2000. urtekoa. 148.000 km., trazio permanentea eta bi blokeo, disko eta frenoen pastilla berriak, kubieta

mixto Graber AT berri-berriak, kristal ilunak, engantxea... karrozeria oso ona dauka, ez kolpe eta ez arrastorik. ☎647 705834.



Derby cross city motorra salgai. 125 c.c. 2009ko urrikoa. 11.000 kilometro. Etxearen garrantia urria bitarte. Transmisio kit berria, tubo eskape berria eta gurpilak erdiberriak. Prezioa: 1.400 euro. ☎653 087191.



Fiat Bravo JTD Sport salgai. 2001ekoa. 143.000 kilometroekin. Egoera onean. ☎679 759066.



Nissan Terrano II 2.7 TD Intercooler salgai. 2003koa. 190.000 KM. Kaja, enbragea eta frenoak aldatu berriak. Egoera onean. 7.000 euro (hitz egiteko prest). ☎659 098781



Opel astra 1.6 16v 105 zaldikoa salgai, 2007. urtekoa, 76.000 kilometro-




rekin. Hagitz egoera onean. ☎646 221837.

ANIMALIAK

salgai

Hispano-arabe con media carta 2002ko **beherra** salgai. Jatorri arabiar-polakoa (MAKHSAM). Etxean jaio eta hezitakoa. Jarrera oso onekoa eta behargile gogotsua. Ez du inolako arazorik. Perratua. Bakunatua eta desparasitua. Prezio interesgarria. ☎679 236689.



Oilagar ehizerako setter-ingeles arrazako **zakurkumeak** salgai. Atta eta ama ehiztari onak. ☎662 594838/948 630238.

DENETARIK


galdu/aurkituak

GOIZUETA. Etxeko giltzak aurkitu dira eta galdu dituenak galde dezala udaletxean. ☎948 514006.

DENETARIK

salerosketak

BMX bizikleta eta **mendiko bizikleta** salgai. ☎648 876044.



Belar idor bolak salgai. ☎660 393436.

SANTESTEBAN Tailerrak

HERNANI BIVANGLER 1.600 100 CV
SCENIC 8 800000 1.100 100 CV
CLIO III 800000 1.100 90 CV
ETA GAINERA
 Laguna II Privilege 2.0 DCI 150 CV
 Megane Grand Tour 1.5 DCI 105 CV
 Kangoo 1.5 DCI 70 CV
 Renault Kolea 1.5 DCI 60 CV
 Suzuki Wagon 1.8 90 CV
19.300€
LAGUNA II ERROTZE 115 CV - 110€
NACIONAL 1.400€
 DONIZTEBEN RENAULT eta KOTXE JA BERRITAN SEKULARO EDUNTZAK

TTIPI-TTAPAK kazetaria behar du ordezkapenatarako

Eskatzen da:

- Kazetaritza edo euskal filologia ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- QuarkXPress programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma info@ttipi.net helbidera

TTIPI-TTAPAK diseinatzailea behar du ordezkapenatarako

Eskatzen da:

- Diseinu grafikoaren arloko ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

Kontuan hartuko da:

- Diseinu grafikoan esperientzia izatea
- Photoshop eta QuarkXPress erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma info@ttipi.net helbidera

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu...

Egun zehatz **ttipi-ttapa** ren harpidetutari


- Irtegi Guztia 1000€ 11€
- Euzkara 10€
- Berrak, Lohaketa eta Maitasun 11€
- Alkanduzko Arzaketa 120€
- Iker Euzkara 10€
- Lotura 11€

(0034) 948 63 54 59
www.ttipi.net


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Zorionak eta muxu bat **EÑAUT ARBURUA PORTURI** irailaren 8an 2 urte bete dituelako. Arantzako amatxi Joxepa eta izeba Karmen eta Mertxe.




Zorionak **IRITZ AGIRREZABAL NIETO** aresoarrari irailaren 6an urteak bete dituelako. Merienda goxoa prestatu! Aresoko familia eta amona.



IKER eta **SAIOA** beratarrek irailaren 6an eta 25ean 5 eta 7 urte egingen dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta ongi pasa eguna.




Zorionak **EDURNE SANCHEZI** irailaren 5ean 4 urte bete dituelako. Zorionak eta muxu bat Sunbilla eta Irungo familiaren partetik, eta bereziki Oihanen partetik.



Zorionak **ARESOKO OIHANA ONSALORI** irailaren 6an urteak bete dituelako! Egun eder bat pasa dezazula eta ea afaritxo bat egiten dugun. Zure lagunak.



Donamariako **OINATZ BALEZTENAK** 3 urte bete ditu. Zorionak Bihotzen partetik.



ARKAITZ LOIARTE OLANO leitzarrik urteak bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak aitaxo, amatxo eta Ugaitzen partetik. Muxu haundi bat.



Aupa **ARKAITZ!** Zorionak attuna, amona, zure osaba Mieltxo parranderoa, Mikaela, Amaia eta Imanolen partetik. Muxu haundi bat.




LEXURI AROTZENA PORTUK 5 urte beteko ditu irailaren 15ean. Aunitz urtez gure ondo biltzaleari, aitaxi eta amatxiren partetik.



LEXURI AROTZENA PORTU lesakarrak 5 urte beteko ditu irailaren 15ean. Zorionak *Marlokilla!* Familia osoaren eta bereziki aitaxo, amatxo, Orti, Elorri eta Aiert anaien partetik. 5 muxu haundi-haundi!



Lesakako **PAXKUAL TABERNA** gure attatok urteak beteko ditu irailaren 14an. Zorionak atta eta ongi pasa zure egunean! Ama, Laida, Zihara eta familia guztiaren partetik.



Donamariako **ANE BERISTAIN REKARTEK** urteak beteko ditu irailaren 16an. Zorionak zure bosgarren urtebetetzean. Eider, ama eta atta.



ANARTZ LUJANBIO goizuetarrak urteak beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak artista! Ongi pasa zure 3. urtebetetze egunean. Muxu pila zure familiaren partetik.



Donamariako **BIHOTZ BALEZTENAK** irailaren 24an 5 urte beteko ditu. Zorionak Oinatzzen partetik.



ENEKO IRIARTE ITURZAETA arizkundarrak urteak beteko ditu irailaren 14an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxeko guzien partetik.



ANARTZ LUJANBIO NARBARTE goizuetarrak 3 urte beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak potollo! Atton-amon, izeba-osaba eta bereziki amatxoren partetik. Muxu haundi bat, matte zaitut!



Beintza-Labaiengo **BEÑATEK** 6 urte egingen ditu irailaren 15ean. Zorionak lagunren partetik.



Elizondoko **MATEO LERTXUNDI FLOREZ** irailaren 14an 4 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, anaia, arreba, lehengusu eta lehengusinak eta familia guztiaren partetik. Ekarri pastelak eta txanpaina.

honen agertu nahi duzu?

www.ttipi.net

4 8

Kulturkari

IRAILA 2011

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

100 egutegi, 70 euro
250 egutegi, 85 euro
500 egutegi, 110 euro
1000 egutegi, 150 euro
(Inbentari BEZ berru diru)

egiteko gaiti gurekin inbentari

*Egutegia Honek 2011ko urriaren 28 baino lehen egiteko egarretan bali du.



**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

349. ALEKO IRABAZLEAK

- * LANJU BERTSU LIBURUA
M^o JUAN ARNUTIA | (DICHOLZ ARKIBO)
- * AQUARIUM 2 SARRERA
M^o JESUS SARRIBERRI | (TXAKI M^o)
- * URTXINTXA ESKOLA PUNFALAPLAN CD + DVD
GREGORIO ALEMAR | (I. ZERNO)
- * ARKUPU TXOKOLATE LOTEA
KATALO BIDEGAIN | (I. BERTI)
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
JESUS M^o ALMENDOS | (SARRITA)
- * TTARTTALO 2 LIBURU
ALFONSO GILUJA | (ARANTZA DIEZ) | (I. BERTI)
FRANZISKITA | MARYA MARIZKURUTENA | (I. ZERNO)

**ARRATE ESTETIKA
ZENTROA**

REINO DEL MILO TRATAMENDO BONOIA
Arrate Estetika Zentroa

ekar

2 LIBURU
Ekar argitaletxea
www.ekar.com

TTIPI SASKIA



PRODUKTUAK:
TTARTTALO ARGITALETXEA
EREIN ARGITALETXEA
IGELA ARGITALETXEA

ennart

KAMISETA BAT
Ennart denda
www.ennart.com

POSADA OITZ

2 LAGIMENDAKO OTORDUA
Dizky Posada
www.posadoitz.com

DESKONTUAK

ESTIZ
1000 zibernetatzen

nafarpres
1000 liburu eta 1000 musutruko
1000 liburu eta 1000 musutruko

JUAN & PIKABEA
1000 gutxi eta 1000 gutxi

SANSIÑENA
1000 zibernetatzen

SANSIÑENA
CITROËN
1000 zibernetatzen

æek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu



**eman
izena**

Maila guztiak
Ordutegi zabalak
Alde presentzialak
Autoikaskuntza
Gurasoendako klase bereziak
EGA

Baztango AEK

Suinki euskaltegia
Jaime Urrutia 16, Elizondo
baztan@æek.org
948 452 471

www.æek.org
902 362 294

æek

Organizazioa euskaraz
ikasteko erabiltzen da
euskara ikasteko.